Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

**3c000239fafe0eefea97f2113c8c32c74ea3543da5f914b9eaf8e9bd63bd947f**

Lotura honetan dago: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

# TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO UZTAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

**2021.07.29**

Tolosako Udaletxean, 2021eko uztailaren hogeita bederatzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**
Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

**Parte hartu duten zinegotziak:**
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU), bere izenean eta Ander Figuerido Zubiria zinegotziaren izenean.
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU) ( 2. puntua hasi aurretik bertaratu da)
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)
Jose Mª Villanueva Telleria (PSE-EE)

**Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**
Paulino Alonso Eraso

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**Eguneko gai-zerrenda**

1. Akta hau onartzea:
   2021eko ekainaren 30eko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
2. Onartzea Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen adjudikazioaren kontratazio-jardunbidea, eta lizitazioari hasiera ematea**.**
3. Onartzea Bilboko Musika Eskolaren eta Tolosako Udalaren kudeaketa agindua, lan poltsak modu bateratuan kudeatzeko.
4. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
5. Hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen eranskinaren aldaketari: 3-2021.
6. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
7. Onartzea aurretiazko fiskalizazio mugatuaren araubidea.
8. Hasierako onarpena ematea 5/2021 kreditu aldaketaren espedienteari.
9. 2020ko Kontu Orokorra onartzea.
10. Hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako hezkuntza programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen oinarriei.
11. Partzialki onartzea Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua arautzen duen Erregelamenduaren 5.4. artikuluari egindako alegazioa, eta aipatutako erregelamenduari behin betiko onarpena ematea.
12. Hasierako onarpena ematea Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programa arautzeko oinarriei.
13. 2019-2020 urteetako finantza-kontroleko urteko planaren berri ematea.
14. Eragozpen edo erreparoen kontra emandako ebazpenen urteko txostenaren berri ematea.
15. Galderak eta eskaerak.

Idazkariak adierazi du 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakunde buruzkoak, 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ander Figuerido Zubiria zinegotziak bere botoa

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

eskuordetzan eman diola Kristina Pelaez Errazkin zinegotziari, azken honek balia dezan haren aitatasun baimenak iraun bitartean.

Ondoren, batzarkideek bilkurako gai-zerrendari heldu diote.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO EKAINAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. **ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ARLO SOZIOEDUKATIBOAN ETA PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ADJUDIKAZIOAREN KONTRATAZIO-JARDUNBIDEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| | |
|---|---|
| Kontratuaren xedea | Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua. |
| Unitate sustatzailea | Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saila |
| Espedientea | 2021SABI0009 |

**II.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saileko buruak 2021eko martxoaren 9an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua; Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2021eko otsailaren 5ean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60046-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Kontratazio espediente hau 2020SABI0006 kontratazio-espedientea huts deklaratu izanaren ondorioa da. Beraz, xede bera duen lizitazioa jartzen da martxan berriro.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluan (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

**III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikuluak ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikuluak xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Asmatu enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio txostena.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikuluaren a) atalean xedaturikoarekin bat etorrita; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak.*
*Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

**<u>Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:</u>**
<u>Lehena.-</u> Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

| | | | LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKON | | | Aurreikusitako aldaketak | BALIO ZENBATETSIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 urte BEZ gab | 1 urte BEZar | 2 urte BEZ gab | 2 urte BEZar | 5 urte BEZ gab | 5 urte BEZar | | |
| 417.606,91 | 459.367,60 | 835.213,83 | 918.735,21 | 2.088.034,56 | 2.296.838,02 | 417.606,91 | 2.505.641,48 |

<u>Bigarrena.-</u> Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi,** eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

<u>Hirugarrena.-</u> Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, kontratuaren xedea SPKLren IV. Eranskinean jasotako gizarte-zerbitzuetako kontratu bat da hau, beraz, 22.1 artikuluren c) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (750.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau.** Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da.**

<u>Laugarrena.-</u> SPKLren 44.1 a) artikuluak xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarri ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari**

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**buruzko errekurtso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluan eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluaren 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

## IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espedienteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: "*Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espedienteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espedienteak, behar bezala arrazoitua*". Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira: "*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu…*".

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Kasu honetan, SPKLren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan bi urtekoa eta bigarrenean urtebetekoa. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izango da.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

| **KOSTUEN KALKULUA (soldata errealak)** | |
|---|---|
| soldatak (gordina) | 242.375,00 |
| Soldatak + Giz. Segur | 322.358,75 |
| etekin industriala (% 6) | 19.341,53 |
| gastu orokorrak (% 13) | 41.906,64 |
| Lokalaren alokairua | 24.000,00 |
| materialak eta bestelakoak | 10.000,00 |
| ***GUZTIRA*** | ***417.606,91*** |

| **SOLDATA KOSTUAK** | | | |
|---|---|---|---|
| **kategoria** | **langileak** | **dedikazioa** | **urteko kostua** |
| zuzendaria | 1 | 50,00 % | 16.927,00 |
| Gizarte lang 1 | 1 | 100,00 % | 29.165,00 |
| Gizarte lang 2 | 1 | 50,00 % | 16.927,00 |
| psikologoa | 1 | 100,00 % | 41.800,00 |
| hezitzailea | 6 | 100,00 % | 137.556,00 |
| ***GUZTIRA*** | ***10*** | | ***242.375,00*** |

| | | | **OINAR. AURREKONT** | | | **Aurreikusitako aldaketak** | **BALIO ZENBATETSIA** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1 urte BEZ g** | **1 urte BEZar** | **2 urte BEZ g** | **2 urte BEZar** | **5 urte BEZ g** | **5 urte BEZar** | | |
| 417.606,91 | 459.367,60 | 835.213,83 | 918.735,21 | 2.088.034,56 | 2.296.838,02 | 417.606,91 | 2.505.641,48 |

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **918.735,21 euro**, horietatik, 835.213,83 euro printzipalari dagozkio, eta 83.521,38 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

| | hilabeteak | Balio zenbatets | Kuota (BEZa barne) |
|---|---|---|---|
| 2022 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2023 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2024 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2025 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2026 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| aldaketak | % 20 | 417.606,91 | |
| ***GUZTIRA*** | ***60*** | ***2.505.641,48*** | ***2.296.838,02*** |
| *Aurreikusita dago kontratua 2022ko urtarrilaren 1ean hastea* | | | |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Kasu honetan, SPKLren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

**VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikuluak xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "*Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...".*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10. eta 19. idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

**VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

> *1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
>
> *2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.505.641,48 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino txikiagoa da; beraz, alkate-lehendakariarena izango litzateke eskumena, baina kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek Udalbatzaren Osoko Bilkurak ebatziko ditu.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Irizpena aho batez onartu da.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**Lehena.-** Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:
Epea: Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi alditan luzatzeko aukerarekin: lehenengoan bi urtekoa eta bigarrenean urtebetekoa. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izango da.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.505.641,48** eurokoa da SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontuan. Gainera, zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta etekin industria izan dira kontuan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

| KOSTUEN KALKULUA (soldata errealak) | |
|---|---|
| soldatak (gordina) | 242.375,00 |
| Soldatak + Giz. Segur | 322.358,75 |
| etekin industriala (% 6) | 19.341,53 |
| gastu orokorrak (% 13) | 41.906,64 |
| Lokalaren alokairua | 24.000,00 |
| materialak eta bestelakoak | 10.000,00 |
| ***GUZTIRA*** | ***417.606,91*** |

| SOLDATA KOSTUAK | | | |
|---|---|---|---|
| **kategoria** | **langileak** | **dedikazioa** | **urteko kostua** |
| zuzendaria | 1 | 50,00 % | 16.927,00 |
| Gizarte lang 1 | 1 | 100,00 % | 29.165,00 |
| Gizarte lang 2 | 1 | 50,00 % | 16.927,00 |
| psikologoa | 1 | 100,00 % | 41.800,00 |
| hezitzailea | 6 | 100,00 % | 137.556,00 |
| ***GUZTIRA*** | ***10*** | | ***242.375,00*** |

| | | | OINAR. AURREKONT | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1 urte BEZ g** | **1 urte BEZar** | **2 urte BEZ g** | **2 urte BEZar** | **5 urte BEZ g** | **5 urte BEZar** | **Aurreikusitako aldaketak** | **BALIO ZENBATETSIA** |
| 417.606,91 | 459.367,60 | 835.213,83 | 918.735,21 | 2.088.034,56 | 2.296.838,02 | 417.606,91 | 2.505.641,48 |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **918.735,21 euro**, horietatik, 835.213,83 euro printzipalari dagozkio, eta 83.521,38 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0500.227.04.231.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

| | hilabeteak | Balio zenbatets | Kuota (BEZa barne) |
|---|---|---|---|
| 2022 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2023 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2024 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2025 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| 2026 | 12 | 417.606,91 | 459.367,60 |
| aldaketak | % 20 | 417.606,91 | |
| ***GUZTIRA*** | ***60*** | ***2.505.641,48*** | ***2.296.838,02*** |
| *Aurreikusita dago kontratua 2022ko urtarrilaren 1ean hastea* | | | |

Kasu honetan, SPKLren 117.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente hau **izapidetze aurreratuaz egingo da**, exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar duen kontratua dagokion kontratua finantzatu behar duten baliabideen kontsolidazio efektiboaren mende baitago, hau da, kontratua benetan exekutatzeko, hurrengo ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon behar da.

**Hirugarrena.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.

**Laugarrena**.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzaileek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**Bosgarrena.-** Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira kontratuaren balizko luzapenei buruzko akordioak, eta horiek udalbatza osoak ebatziko ditu.

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Gizarte Zerbitzuetako Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako udalerrian arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen adjudikazioaren kontratazio-jardunbidea, eta lizitazioari hasiera ematea.

## 3. ONARTZEA BILBOKO MUSIKA ESKOLAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN KUDEAKETA AGINDUA, LAN POLTSAK MODU BATERATUAN KUDEATZEKO.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA

### AURREKARIAK

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Musika Eskolako zuzendariak, 2021eko ekainaren 21ean egindako txostenean jaso bezala, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Musika Eskoletako ordezkariek irakasleen lan-poltsa bateratuak egiteko hitzarmen proposamena egin dute, musika eta dantzako irakasleen lan-poltsa bateratuen sustapena lantzeko helburuarekin, aurreko urteetan egin direnen ildotik jarraituaz.

Hala, Musika Eskolako zuzendariak jardunbide bateratu horretan parte hartzea proposatu du, ondoan aipatzen diren arrazoietan oinarrituta.

**BIGARRENA.-** Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen artean elkarlan esparru historiko bat dago, emaitzak eman dituena hainbat espezialitatetako irakasleen lan poltsak sortzen, jarraian adierazita dagoenez:

1. Horretarako, 2007an Donostialdeko ikastetxeetako zuzendariak hasi ziren haien arteko bilera batzuk egiten, eta 2008an adostu zuten elkarrekin lan-poltsa batzuk eratzea. Orduan Donostiako, Errenteriako, Andoaingo, Lasarte-Oriako eta Lezoko udalek parte hartu zuten.
2. 2011n, aurreko esperientzia batean oinarrituta, bigarren lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten gai berari buruz; hitzarmen hartan Donostiako, Irungo, Lasarte-Oriako, Tolosako, Orioko, Beasaingo, Errenteriako eta Lezoko udalek parte hartu zuten eta guztientzako zerrenda komunak eta bateratuak kudeatzeko irizpideak zehaztu zituzten.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

3. Bi prozesuak baloratu dira eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko (EHME) kide diren hainbat ikastetxek egindako eskaeren ondorioz, bilera batzuk egin dituzte, eskola eskatzaile horien premiei erantzuteko irakasle-poltsa batzuk osatzeko.
4. 2016an, hainbat bilera egin zituzten Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin, oinarriak eta irizpideak adosteko aukerak bilatzeko. Hortik prozesu bat sortu zen eta 26 eskolak hartu zuten parte.
5. Aurten, Bilboko Musika Eskolak hartuko du lan-poltsen jardunbidea garatzeko konpromisoa.

**HIRUGARRENA.-** Aurreko elkarrizketa eta ikerketa horiek tarteko, aukera ikusi da eskola kopuru handi batekin hitzarmenak egiteko. Kudeaketa errazteko, banan-banan sinatuko dira eskola bakoitzak dituen behar eta ezaugarri guztiei bide emateko beharrezko hitzarmen guztiak.

**LAUGARRENA.-** Jarduten ari diren bi administrazioek badakite zein zaila den tokiko esparruan musika eta dantzako irakasleen lan-poltsak sortzeko hautapen prozesuak egitea, kudeaketa materialaren konplexutasuna eta deialdia egiten duen entitateari sortutako kostu ekonomikoak direla eta. Gainera, tokiko entitate gehienen kasuetan, horrelako prozesuak egiteko espezializatutako jendea falta da. Halaber, aldi berean prozesu eta deialdi ugari egoteak administrazioari baliabideak barreiatzea eta kostuak biderkatzea dakarkio, baita prozesuetan parte hartzeko interesa duten herritarrei ere.

**BOSGARRENA.-** Tolosako Udaleko Musika Eskolak proposatu du hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduketa garatzea, esparru komun bat ezartzearen abantailak kontuan hartuta. Hautaketa prozesuak lurraldeko musika eta dantza Ikastetxeen, beren tokiko autonomia erabilita hartan parte hartzen dutenen, beharrei erantzun behar die. Hauek dira abantaila horietako batzuk:

- Hautaketa irizpide berberak aplikatzea merezimenduak balioestean.
- Aldi berean hainbat hautaketa prozesutan parte hartzen ari diren hautagaien ihesetik eratorritako gainkostuen arazoa konpontzea.
- Prozesuak egitearen kostu ekonomikoa eta giza baliabideena murriztea.

**SEIGARRENA.-** Helburu horik ikusita, Tolosako Musika Eskolako zuzendariak proposatu dio Udal honi hitzarmen bat izenpetzea **Bilboko Udaleko Musika Eskolarekin**, honako xede honekin: Bilboko Udalaren Musika Eskolari **agintzea irakasleen lan-poltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala,** Tolosako Udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko**.** Hitzarmen horrek erakunde publikoen arteko lankidetza-hitzarmenaren izaera izango du.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## AZTERKETA JURIDIKOA

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Musika Eskola Tolosako Udaleko zerbitzu publikoa da. Zerbitzu hori Udalaren eskumen propioa da, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, 17.20 artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoaren arabera.

Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrendan dagoen informazioaren arabera, Musika Eskolako irakasleak enplegatu publikoak dira, lan-kontratudun langileak. Langile horien hautaketa legeria honek arautzen du:

- 2/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak; 103. artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-kontratudun pertsonala hautatu behar da ondoko printzipioetan oinarritutako prozesuen bitartez: berdintasuna, publizitatea -dagokion Lan Eskaintza Publikoa aurretik onartuta-, merezimendua eta gaitasuna.
- 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duenak; hain zuzen, 55.2 artikuluan xedatzen ditu enplegu publikora sartzeko irizpide nagusiak:

  *«2. Estatutu honetako 2. artikuluan jasotako administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak hautatzeko erabiltzen dituzten prozeduretan, ongi bermatu behar dituzte bai arestian adierazitako printzipio konstituzionalak baita ondoren ezarritakoak ere:*

  *a) Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.*

  *b) Gardentasuna.*

  *c) Hautaketa-organoetako kideen profesionaltasuna eta inpartzialtasuna.*

  *d) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.*
  *e) Hautaketa-prozesuetako edukiak bete beharreko eginkizunei edo atazei egokitutakoak izatea.*

  *f) Hautaketa-prozesuetan bizkortasunez jokatzea, objektibotasunari kalterik egin gabe».*

- Azkenik, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duenak; 33.1 artikuluan, aldi baterako pertsonala hautatzeko printzipio berberak xedatzen ditu.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Musika eta dantza eskoletako aldi baterako irakasleak hautatzeko Bilboko Udaleko Musika Eskolak proposatutako oinarriek arautzen dituen jardunbideak goian aipaturiko printzipioak betetzen ditu, teknikari honen iritziz.

Bestaldetik, proposatutako hitzarmenaren bitartez, Udal honi dagozkion ahalmen batzuk jartzen dira Bilboko Udalaren esku, hain zuzen, honako hauek: aldi baterako irakasleak hautatzeko prozedura egikaritzeko jarduketa material eta tekniko guztiak, proposaturiko hitzarmenean eta oinarrietan jasotakoaren arabera. Kasu guztietan, Tolosako Udalak kontserbatuko ditu dagozkion eskumenak arlo honetan.

**BIGARRENA.-** Kudeaketa-aginduaren bitartez, dagokion administrazio publikoak edo zuzenbide publikoko entitate batek bere eskumenekoa den jarduera materiala edo teknikoa utz dezake administrazio bereko edota beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko organo baten esku, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duenak, 11.a artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan proposatzen den kudeaketa-aginduak bi helburu horiek betetzen ditu. Alde batetik, Musika eta dantza eskola guztien aldi baterako irakasleen beharrak asetzeko jardunbide bateratuak gauzatzea askoz eraginkorragoa da, bestelako kasuan musika eskola bakoitzeko administrazioak bere jardunbide propioa garatu beharko lukeelako. Bestetik, udal administrazioetan ez dago nahiko pertsonal aditua, eta, egongo balitz ere, dauden baliabide pertsonalekin ezinezkoa izango litzateke beharrezkoak diren hautatze-prozesuak aurrera eramatea.

Arrazoi horiek kontuan harturik, proposatzen den kudeaketa-aginduak onura besterik ez dakarkio administrazio honi.

Horretaz gain, kudeaketa-aginduak arautzen dituen gainontzeko xedapenak honako hauek dira, betiere aipatu den Legearen 11. artikuluaren barruan:

*Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa-aginduen xede. Hori gertatzen bada, horien izaerak eta araubide juridikoak legeria horretan aurreikusita dagoena bete beharko du.*

*2. Kudeaketa-aginduak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko agindua ematen duen organoaren edo entitatearen ardura izango da aginduan emandako jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.*

*Nolanahi ere, agindua jasotzen duen entitate edo organoa izango da kudeaketa-agindua egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio.*

*3. Kudeaketa-aginduak formalizatzeko, erregela hauek bete beharko dira:*

*a) Kudeaketa-agindua administrazio berekoak diren administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen artean egiten bada, administrazio horren arauetan ezarrita dagoen bezala formalizatuko da; halako araurik ez badago, berriz, esku hartzen duten zuzenbide publikoko organo edo entitateek espresuki hartutako akordioari begiratuko zaio.*

*Nolanahi ere, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko tresna eta ebazpena, efikazak izan daitezen, Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko dira, agindua egiten duen organoa zein administraziotakoa den kontuan hartuta.*

*Administrazio bakoitzak arautu ditzake akordio horien baliozkotasunerako betekizunak. Akordio horietan, gutxienez honako hauek jasoko dira espresuki: zein den jarduera,indarraldia eta kudeaketaren izaera eta irismena.*

*b) Kudeaketa-agindua administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; ......... Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, agindua egiten duen organoa zein administraziotakoa den kontuan hartuta.*

Kasu honetan, kudeaketa-agindua formalizatzeko tresna hitzarmena izango da. Hala ere, aipatu den 40/2015 Legearen 48.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetza-hitzarmenak arautzen dituen xedapenak ez dira aplikagarriak izango kudeaketa-aginduen kasuan.

Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, transkribatu den 11.3.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**HIRUGARRENA.-** Aipatutakoez gain, hitzarmen honi arau hauetan xedaturikoa aplikatuko zaio:

- 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Musika Eskola direlako arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak
- 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Musika eta Dantza Eskolen sortzea eta funtzionamendua zuzenduko duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.

**LAUGARRENA.-** Kudeaketa-agindua onartzeko organo eskuduna Udalbatzaren osoko bilkura, eta **korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar du**, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.q) eta 47.h) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Beraz, aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Irizpena aho batez onartu dute.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Bilboko Udaleko Musika Eskolaren arteko hitzarmena, Udal honetako Musika Eskolako Zuzendaritzak proposatu bezala.** Hitzarmenaren xedea honako hau da: Bilboko Udaleko Musika Eskolari **agintzea irakasleen lan-poltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala,** Tolosako Udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko, irizpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Bilboko Udaleko Musika Eskolak aurkezturiko oinarriak onartzea, espedientean jasotakoaren arabera.

**HIRUGARRENA.-** Kudeaketa-agindua jasotzen duen hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**LAUGARRENA.-** Erabaki hauek Tolosako Musika Eskolako Zuzendaritzari eta Bilboko Udaleko Musika Eskolari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Bilboko musika eskolaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, lan poltsak modu bateratuan kudeatzeko.

## ERANSKINA

## HITZARMENAREN KLAUSULAK

| **ERABAKIAK** |
|---|
| **LEHENENGOA.- XEDEA** |
| Hitzarmen honen bitartez, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAK ESKOLA SUSTATZAILEARI agintzen dio Musika eta Dantza Ikastetxeetarako lan poltsak sortzeko hautaketa prozedura egikaritzeko behar beste jarduera material, jarduera tekniko edo zerbitzuzko jarduera egiteko. |
| **BIGARRENA.- DEIALDIETAKO ESPEZIALITATEEN DESKRIBAPENA** |
| Hautaketa prozedura bateratuak deialdi honen 1. eranskinean zehaztutako espezialitateak eskainiko ditu, besteak beste. |
| **HIRUGARRENA.- KUDEAKETA-AGINDUAREN IRISMENA** |
| ESKOLA SUSTATZAILEAK hautaketa prozedura egikaritzeko jarduketa material edo tekniko guztiak egingo ditu, eta Euskal Herriko eta Nafarroako agintaritzaren aldizkarietan argitaratuko ditu deialdien oinarri bateratu espezifikoak, honako hauek jasoko dituztenak:<br>1. Parte hartzeko baldintzak izango dira 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoan, enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenean, ezarritakoak.<br>2. Horrez gain, irakasleen kasuan, honako legezko testuetan jasotako xedapenak aplikatuko dira, Musika eta Dantza |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Ikastetxearen izaeraren arabera:

- 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Musika Eskola direlako arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.
- 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, dantza ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena.
- 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituena.
- 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa.

3. Balioespen bat egingo da, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTRO bakoitzari aukera emango diona bere lanpostuen zerrendako baldintzak zehazteko. Zehazki, espezialitate bakoitzean lan poltsan sartutako pertsona guztien ezaugarri hauek adieraziko dira:

- Hautagaiak egiaztatutako euskararen profil linguistikoa.
- Poltsetara sartzeko titulazioa / gaikuntza/ egiaztapena hauek izan daitezke:

  I. Titulazioa/gaikuntza profesionala:
     1. Musika: 569/1992 ED, 1577/2006 ED.
     2. Dantza: 389/1992 ED eta 85/2007 ED.
     3. Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza, 289/1992 Dekretuan oinarritutakoa.
     4. Prestakuntza egokiaren egiaztapena, 421/1992 Foru Dekretuan oinarrituta.

  II. Instrumentu Irakaslearen titulua, 2618/1966 Dekretuaren arabera, eta goi mailako irakaskuntzarako baliokideak.

  III. Irakaskuntza Artistikoetako goi mailako titulazioa.

4. Eskabideak bi modutan aurkeztu ahal izango dira:

- Elektronikoki: ESKOLA SUSTATZAILEAK bere webgunean eskuragarri izango duen aplikazio informatikoaren bidez.
- Paperean: ESKOLA SUSTATZAILEAK emango duen formularioaren bidez. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan aurkeztu ahal izango da.

**a. Eskabideak, idazkiak eta dokumentuak aurkeztea**

Hautagaiek onarpen eskabideak eta hautaketa prozesuarekin lotutako gainerako dokumentazioa aurkeztu ahal izango dute, baita hautaketa prozesuko izapideetako egintzen eta behin betiko egintzen aurkako erreklamazioen eta errekurtsoen idazkiak ere, ESKOLA SUSTATZAILEAK bere webgunean izango duen aplikazioan. Horrez gain, 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dituzte.

**b. Aurkeztearen ondoreak**

Aurreko paragrafoan aipatutako idazkiak eta dokumentuak aurkezteko data baliozkoa izango da guztiz ESKOLA SUSTATZAILEAREN aurrean interesdunek epeak betetzeko ondoreetarako.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**c. Erregistratzeko eta bidaltzeko izapidea**

Administrazio sinatzaileek konpromisoa hartzen dute interesdunei lan-poltsa osatzeko deialdiari buruzko informazioa emateko eta hautaketa prozesuarekin lotutako izapideak errazteko.

Informazio horretan sartzen da 2016/679 Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak, bere 13. artikuluan xedatzen duena (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra –hemendik Aurrera, DBEO–).

Zentzu horretan, ESKOLA SUSTATZAILEAK administrazio laguntzaileen esku jarriko du prozesuaren fase bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa, bai eta eskabideak eta erreklamazioak aurkezteko behar diren elementuak ere, izapidetze telematikorako laguntza-linea telefoniko bat barne.

**d. Baztertzea**

Hitzarmen honen aplikazio esparrutik kanpo gelditzen da lan poltsa osatzen duten pertsonek administrazio laguntzaileetako edozeinek zuzendutako lan eskaintzekin lotutako eskaerak, idazkiak edo dokumentazioak aurkeztea; horiek dagokion entitatearen egoitzan aurkeztu beharko dira.

1. Bi entitateek, poltsak kudeatzeko lankidetzaren markoan, tratamenduaren erantzule izango dira eta koordinatzeko neurriak artikulatu beharko dituzte, poltsa horiek guztiz operatibo egon daitezen; hala, beren jarduketek beti egokitu beharko dute, bai DBEOk ezarritakora, bai datuen babesaren alorrean indarrean dagoen beste edozein araudi aplikagarrira.
2. Poltsak egin eta gero, ESKOLA SUSTATZAILEAK TITULARITATE PUBLIKOKO ZENTROARI lagako dizkio poltsa horiek, eta azken horrek konpromisoa hartuko du datu horiek Hitzarmen honetan jasotako helburuarekin erabiltzeko, eta ezin izango dizkie hirugarren batzuei laga.
3. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta datuen babesari aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gainerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte edozein arduradunen aurrean. ESKOLA SUSTATZAILEA izango da lan-poltsak ebazteko eta, hala badagokio, eguneratzeko eskumena izango duena. Interesdunen batek TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAREN aurrean datuak babesteko eskubideren bat baliatzen badu, horren berri eman beharko dio ESKOLA SUSTATZAILEARI, poltsak behar bezala eguneratu ditzan, hitzarmen honetan ezarritako betebeharren banaketaren arabera.
4. Poltsetako datu pertsonalak tratatu behar dira dauden arriskuetara egokitutako segurtasun-neurriak erabilita, bete behar dira DBEOren 32. artikuluko neurriak, eta prozedurak ezarri behar dira segurtasun-arrakalen berri emateko, hala dagokionean, kontrol- agintaritzari eta interesdunei. Horrela, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAK eta ESKOLA SUSTATZAILEAK Administrazio Elektronikoaren eremuan, Segurtasunaren Eredu Nazionaleko 3/2010ko otsailaren 8ko Errege Dekretuan aurreikusita dauden segurtasun neurriak (teknikoak eta antolakuntzakoak) beteko ditu. Datuen tratamendua eta haiek kontserbatzeko legezko epeak amaitutakoan, datu horiek modu seguruan suntsitu behar dira.
5. ESKOLA SUSTATZAILEAK balioespen batzorde bat izendatuko du espezialitate bakoitzeko. Kontuan hartuko da:

   a) Batzordeko kideak baztertu egin ahal izango dira urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoak, 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako inguruabarretan badaude edo hautagaiak hautaprobetarako prestatu badira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan.

   b) Gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egongo da batzordean, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, 20.6. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

   c) Halaber, parte-hartzaileak izendatzean, kide guztiak elebidunak izan daitezen zainduko da.
6. Balioespen batzordeak eratzeko, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROKO langileak ere kontuan hartu ahal izango dira.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Horretarako, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROEK konpromisoa hartzen dute ESKOLA SUSTATZAILEAREN eskura jartzeko gutxienez beren langileen % 20, haren plantillaren parte izan daitezen, kasu bakoitzean beren langileei dagozkien dietak bere gain hartuta. Langile horiek hitzarmen honen 2. ERANSKINEAN sartuko dira.

7. Hautaketa-sistema merezimendu-lehiaketa izango da, eta 30 punturekin baloratuko da.

8. Euskara ezagutzea baldintza izan daiteke lanpostu bat lortzeko, dagokion entitateak onartutako postuaren eskakizunen arabera. Deialdiaren ondoreetarako, kontuan hartuko da 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denean, xedatutakoa (EHAA, 219 zk. 2010/11/15) eta 30/2011 Foru Agindua, otsailaren 28koa, Hezkuntzako kontseilariarena, hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituena, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak ezartzen dituen mailei erreferentzia eginez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko eremuan xedatutakoa (NAO, 64zk. 2011/04/01).

9. Hizkuntza derrigorrezkoa ez den postuetan euskarazko hizkuntza-eskakizuna meritu moduan kontatuko da, eta puntuazioa lan-poltsako oinarrietan deskribatutako merituetara gehituko da.

10. Hizkuntza derrigorrezkoa den postuetarako, zerbitzuaren beharren arabera eta ezaugarriak betetzen ez duen pertsonarik ez dagoenean, zerrendako beste pertsonei deitu ahalko zaie ordezkapenetarako. Kasu horietan eskatutako hizkuntza-eskakizuna baxuagoa meritu bezala kontatuko da eta dagokion puntuazioa lan-poltsako oinarrietan deskribatutako merituetara gehituko da.

Hautaketa prozesuari buruzko argitalpenak ESKOLA SUSTATZAILEAREN iragarki taulan eta webgunean azalduko dira, eta TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROETARA bidaliko dira. ESKOLA SUSTATZAILEAREN iragarki taulan argitaratzeko data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko.

11. Lan-poltsak sortzeko prozesua amaitutakoan, zerrendak eguneratzeko prozedura hasiko da. Horretarako, ESKOLA SUSTATZAILEAK irizpide hauei jarraituko die:

- **Titulazioak eta euskararen eskakizunak eguneratzea dagoeneko lan poltsan daudenentzat**

  Behin prozesua amaituta, zerrenden parte direnek beren profil profesionala osatu ahal izango dute beranduago lortutako egiaztapenekin (euskararen profila eta/edo titulazioa). Dokumentazio horrek zerrendak eguneratuko ditu, eta ez du aldatuko ezarritako hurrenkera. Dena den, kontuan hartuko da lanpostuaren eskakizunak betetzen ote diren egiaztatzean.

- **Zerrendetan ez dauden hautagaiak gehitzea**

  Interesdunek beren eskaera eta dokumentazioa aurkezteko irekiera urtean behin izango da, eta ESKOLA SUSTATZAILEAREN ebazpenaren bitartez jakinaraziko da zein den eskaera horiek balioesteko aurkezteko azken eguna.

  Ezarritako epearen barruan aurkeztutako curriculumak lan poltsa arautzen duten oinarrietako irizpideei jarraituz, eta lan-poltsara deialdi horren bidez sartzen direnak dagozkien zerrendetan sartuko dira behin hautaketa prozesua amaitutakoan, lan poltsa osatzen dutenen atzean, zero punturekin eta hautaketa prozesuan lortutako emaitzen hurrenkeran.

  Urtero ofizioz ezarriko dira urteko lehen hiruhilekoan deitutako espezialitate guztiak.

  Salbuespen modura, eta espezialitateren bateko lan eskaintzarako hautagairik ez badago, ESKOLA SUSTATZAILEAK espezialitate hori ixtea erabaki dezake, ohiko deialdiaren modu berean argitaratutako ebazpen baten bitartez.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| LEHENENGOA. ESPEZIALITATEAK |
|---|
| TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAK ESKOLA SUSTATZAILEARI eskatzen dio honako espezialitate hauen deialdia egiteko:<br>1. Instrumentu polifonikoak: pianoa, akordeoia, perkusioa.<br>2. Hari-instrumentuak: biolina, biola, biolontxeloa, kontrabaxua.<br>3. Euskal instrumentuak: txistua, dultzaina.<br>4. Instrumentu modernoak: baxu elektrikoa, teklatua,<br>5. Metalezko instrumentuak: tronpa, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, tuba<br>6. Egurrezko instrumentuak: flauta, oboea, klarinetea, saxofoia.<br>7. Antzinako instrumentuak:<br>8. Dantza irakasleak:<br>9. Jotzaileak:<br>10. Beste ikasgaiak: musika eta mugimendua, musika hizkuntza, harmonia, abesbatza, kantu bakarlaria, musikaren historia, talde instrumentalak. |
| **BIGARRENA. EPAIMAHAIAK** |
| TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROKO berezko langileak, ESKOLA SUSTATZAILEAREN BALIOESPEN BATZORDEEN parte izateko. |

| **NANa**/*DNI* | **Izen-abizenak**/*Nombre y apellidos* | **Espezialitatea(k)**/ *Especialidad(es)* | **Izaera**/*Condición* | **Euskalduna** |
|---|---|---|---|---|
| 15972371K | AMAIA LIZASO BASTARRIKA | AKORDEOIA | Lan-kontradun finkoa | BAI |
| 72435147M | MARIAJE REKONDO AROTZENA | PIANOA<br>MUSIKA<br>HIZKUNTZA | Lan-kontratudun finkoa | BAI |
| 72436760P | KOLDO TARRAGONA MOMBLONA | AKORDEOIA | Lan-kontradun finkoa | BAI |
| 72432031V | MIGUEL ANGEL MORENO BAGÜÉS | TRONBOIA | Lan-kontradun finkoa | BAI |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| EGOITZA: BILBO |
|---|
| • Egurra<br>• Instrumentu polifonikoko irakasleak<br>• Hari-instrumentuko irakasleak<br>• Euskal instrumentuetako irakasleak<br>• Instrumentu modernoko irakasleak<br>• Beste irakasgaiak 1 |
| **EGOITZA: DONOSTIA** |
| ○ Metalezkoen irakasleak<br>○ Euskal instrumentuetako irakasleak<br>○ Dantza irakasleak<br>○ Beste irakasgaiak 2<br>○ Interpreteak<br>○ Beste lanpostuak |
| **EGOITZA: GASTEIZ** |
| • Egurrezkoen irakasleak<br>• Antzinako instrumentuetako irakasleak<br>• Beste irakasgaiak 3 |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## 4. ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 4.2 lerroa aldatzeko proposamena jaso da.

Lehen honela zegoen:

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 4.2.- Ikastetxeetako dirulaguntza

| | |
|---|---|
| Saila | Hezkuntza |
| Sektore hartzaileak | Tolosako ikastetxeak |
| Helburuak | Ikasleengan hainbat balio sustatzen dituzten jarduera edo programak |
| Lortu nahi diren ondorioak | Tolosako ikastetxeetan osagarriak diren jarduerak bultzatzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Hitzarmenen bidez gauzatuko dira. Dirulaguntza Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea aurreikusten da. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Ikasle kopurua eta iritzia.<br>Jardueren kopurua. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0900.481.01.320.00 | HERRIKIDE IKASTETXEA | Hitzartutako ikastetxeen dirulaguntza | 18.620 € | Izenduna | 55.860 € |
| 0900.481.01.320.00 | LASKORAIN IKASTOLA | Hitzartutako ikastetxeen dirulaguntza | 29.380 € | Izenduna | 88.140 € |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Horrela aldatzea proposatu dute:

Dirulaguntza lerroa: 4.2.- Ikastetxeetako dirulaguntza

| | |
|---|---|
| Saila | Euskara eta Hezkuntza |
| Sektore hartzaileak | Tolosako ikastetxeak edo guraso elkarteak |
| Helburuak | Tolosako ikastetxeetan osagarriak diren jarduerak bultzatzea eta Ikasleengan hainbat balio sustatzen dituzten jarduerak/programak diruz laguntzea |
| Lortu nahi diren ondorioak | Tolosako hezkuntza zentroetan haur, nerabe, gazte eta familien/bizikidetza-unitateen heziketan lagungarriak diren curriculumaz/eskolaz kanpoko programak, eta, familien zaintza eta lan jarduera bateragarria egiteko kontziliazio programak sustatzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Deialdi publiko bat egingo da. Ebazpena jakinarazi egingo da, eta gastua egin ondoren, dagokion zuriketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduera-memoria eta egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria (ordenantzan eta deialdian zehaztutakoaren arabera). |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0900.481.01.320.00 | Tolosako ikastetxeak edo guraso elkarteak | Curriculumaz/ eskolaz kanpoko programak | 60.000 € | Norgehiago ka | 180.000 € |

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Xabier Balerdi (EAJ): Aldeko botoa
Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Nerea Letamendia (EAJ): Aldeko botoa
Garbiñe Marzol (EH-Bildu): Aldeko botoa
Kristina Pelaez (EH-Bildu): Aldeko botoa
Jose Mari Villanueva (PSE-EE): Aldeko botoa

Hori dela eta, batzordeak honako hau

## DIKTAMINATU DU

**Lehena.-**Sartzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dirulaguntza lerro hau:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Dirulaguntza lerroa: 4.2.- Ikastetxeetako dirulaguntza

| | |
|---|---|
| Saila | Euskara eta Hezkuntza |
| Sektore hartzaileak | Tolosako ikastetxeak edo guraso elkarteak |
| Helburuak | Tolosako ikastetxeetan osagarriak diren jarduerak bultzatzea eta Ikasleengan hainbat balio sustatzen dituzten jarduerak/programak diruz laguntzea |
| Lortu nahi diren ondorioak | Tolosako hezkuntza zentroetan haur, nerabe, gazte eta familien/bizikidetza-unitateen heziketan lagungarriak diren curriculumaz/eskolaz kanpoko programak, eta, familien zaintza eta lan jarduera bateragarria egiteko kontziliazio programak sustatzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Deialdi publiko bat egingo da. Ebazpena jakinarazi egingo da, eta gastua egin ondoren, dagokion zuriketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduera-memoria eta egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria (ordenantzan eta deialdian zehaztutakoaren arabera). |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0900.481.01.320.00 | Tolosako ikastetxeak edo guraso elkarteak | Curriculumaz/ eskolaz kanpoko programak | 60.000 € | Norgehiagoka | 180.000 € |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean),

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

## 5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2021EKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETARI: 3-2021.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA

2021eko dirulaguntzen eranskinean, aldaketa hauek sartzea proposatu da:

| Partida | Onuraduna | Helburua | Behin betiko Aurrekontua 2021 | Mota |
|---|---|---|---|---|
| 1300.481.01.172.00 | ALURTXIKI AUZO ELKARTEA | Landa auzoetako festa eta jarduerak | 1.500 € | Izenduna |
| 0900.481.01.320.00 | IKASTETXEAK EDO GURASO ELKARTEAK | Curriculumaz/eskolaz kanpoko programak | 72.000 € | Norgehiagoka |

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak**:
Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Garbiñe Marzol Ormazabal
Kristina Pelaez Errazkin
Jose Mari Villanueva Telleria

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.-**Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa honi hasierako onarpena ematea eta eranskina honela uztea:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| Partida | Onuraduna | Helburua | Behin betiko Aurrekontua 2021 | Mota |
|---|---|---|---|---|
| 1300.481.01.172.00 | ALURTXIKI AUZO ELKARTEA | Landa auzoetako festa eta jarduerak | 1.500 € | Izenduna |
| 0900.481.01.320.00 | IKASTETXEAK EDO GURASO ELKARTEAK | Curriculumaz/eskolaz kanpoko programak | 72.000 € | Norgehiagoka |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2021eko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa hori behin betiko onartutzat hartuko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen eranskinaren aldaketari: 3-2021.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## 6. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren fakturak 2020ko ekitaldiko faktura data dute eta 2021ean jaso dira, taula honetan ikusten den moduan:

| HARRERA DATA | FRA. DATA | HORNITZAILEA | FRA. ZK. | KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021-07-01 | 2020-01-29 | Fontaneria Jon Ander Ferrero | 11/2020 | Festen txabolaren komuna | 288,77 € |
| 2021-07-01 | 2020-03-09 | Fontaneria Jon Ander Ferrero | 31/2020 | Musika Eskolako igogailua hustu | 344,00 € |

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46. artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2020ko abenduaren 31n aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2021eko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

Itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea:

| HARRERA DATA | FRA. DATA | HORNITZAILEA | FRA. ZK. | KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021-07-01 | 2020-01-29 | Fontaneria Jon Ander Ferrero | 11/2020 | Festen txabolaren komuna | 288,77 € |
| 2021-07-01 | 2020-03-09 | Fontaneria Jon Ander Ferrero | 31/2020 | Musika Eskolako igogailua hustu | 344,00 € |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu itxitako ekitaldiko fakturak.

## 7. ONARTZEA AURRETIAZKO FISKALIZAZIO MUGATUAREN ARAUBIDEA.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAK, KONTUEN BATZORDE BEREZIARI DAGOZKION FUNTZIOEKIN, 2021EKO UZTAILAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA

I.- Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren IV. tituluak toki-erakundeen barne-kontrolaren funtzioak jasotzen ditu,

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

kudeaketa ekonomiko propioari, erakunde autonomoei eta haien mendeko merkataritza-sozietateei dagokienez. Funtzio horien barruan sartzen dira jarduera ekonomikoetan legea betetzen dela kontrolatzea, finantza-kontrola, eta programatutako helburuak lortzeko eraginkortasuna eta efizientzia kontrolatzea, kontuan hartuta eremu horretako eragiketei eragiten dieten antolamendu- eta administrazio-sistemak.

Agindu horrek 66.2 artikuluan xedatzen du, egin beharreko kontrolaren arabera, kontrolpeko egintza onartu aurretik edo ondoren egin ahal izango dela kontrola. Era berean, 71. artikuluan ezartzen du aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-hartzea mugatua izan daitekeela.

Legezko agindu horien aurreikuspenak, aurretiko fiskalizazioari buruzkoak, abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak garatu ditu (Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena); zehazki, 9. artikuluak (Eskubide eta sarreren aurretiazko fiskalizazioa) eta 13. artikuluak (Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea).

II.- Eskubideen aurretiazko fiskalizazioari dagokionez, 21/2003 Foru Arau horrek 71. artikuluan xedatzen du toki erakundeek erabaki ahal izango dutela, udalbatzaren erabaki baten bitartez, eskubideen aurretiazko fiskalizazioa egin beharrean, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola erabiltzea eta ondorengo egiaztapenak egitea, laginketa edo auditoriako teknikak erabiliz.

Hala ere, 32/2018 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, aldez aurreko fiskalizazioa egin beharko zaie beti bidegabeko diru-sarreren itzulketetatik eratorritako ordenazio-egintzei eta ordainketa materialei.

Era berean, artikulu horretan ezarritakoaren arabera, eskubideen eta sarreren geroagoko kontrola finantza-kontrolaren bitartez egingo da.

III.- Gastuen aurretiazko fiskalizazioari dagokionez, 32/2018 Foru Dekretuaren 17. artikuluak adierazten du honako gastu hauek ez direla fiskalizazio horren mende egongo:

a) Material ez-inbentariagarrian egindako gastuak.
b) Kontratu txikiak.
c) Aldizkako gastuak eta jarraiko traktuko gainerako gastuak, behin fiskalizatuta haiei dagokien egintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketen hasierako epeko gastua.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Aurreko gastuei finantza-kontrola egingo zaie, kontrol iraunkorreko modalitatean, modu objektibo, sistematiko eta ausazkoan, planifikatzen diren finantza-kontroleko jardueren esparruko lagin adierazgarrien gainean.

Gainerako gastuei dagokienez, 32/2018 Foru Dekretuaren 13. artikuluak xedatzen du «organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren eta lehendakariaren proposamenez, toki entitateko osoko bilkurak aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea aplikatzea erabaki ahal izango duela».

Osoko bilkurak aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatua erabakitzen duenean, organo kontu-hartzailea oinarrizko baldintza hauek egiaztatzera mugatuko da:

a) Aurrekontu kreditua egotea, eta proposatutako kreditua hartu nahi den gastu edo obligazioaren izaerari begira egokia izatea.

Aurretiaz izapidetzen direnean exekuzio materiala ondorengo ekitaldian hasi behar zaien edo finantzaketa lotua duten gastuak, egiaztatuko da jasotzen ote den kreditua benetan izateari dagokionez edo gastua finantzatuko duten baliabideak kontsolidatzeari dagokionez eteteko baldintzarik.

Era berean, urte anitzeko gastu konpromisoak hartzekotan, egiaztatuko da 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan jasotakoa ere betetzen ote den.

b) Obligazioak edo gastuak organo eskudunak sortzea.

c) Kudeaketa prozesuan duen garrantzia dela eta, osoko bilkurak zehazten dituen beste alderdi batzuk

Alderdi horiek zehaztean, bereziki begiratuko zaie araudi erregulatzailean jarduketa publikoetan objektibotasuna, gardentasuna, ez-diskriminazioa eta tratu berdintasuna ziurtatzeko jasota dauden alderdiei.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretuaren 19. artikuluak xedatzen du ezen, gastuaren likidazioaren edo obligazioen onarpenaren aurretiazko kontu-hartzea egitean, honako hauek ere egiaztatu beharko direla:

a) Obligazioek erantzutea aldeko iritziarekin onartu eta, hala badagokio, fiskalizatu diren gastuei, salbu eta gastuaren onespena eta obligazioaren onarpena aldi berean egin behar badira.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

b) Obligazioaren frogagiri guztiak bat etortzea aplikagarriak diren lege eta erregelamenduzko xedapenekin.

c) Materialki egiaztatzea, bidezkoa denean, dena delako gastua benetan eta adostasunez gauzatu dela.

Fiskalizazio mugatuaren mende dauden betebeharrak edo gastuak beste fiskalizazio oso baten xede izan daitezke geroago, fiskalizazio hori eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean, laginketa- edo auditoriako teknikak aplikatuz.

IV.- Administrazio-prozedurak eta kudeaketa-prozesuan garrantzi berezia duten alderdiak aztertu dira.

Gastu-espediente bakoitzean aztertu beharreko alderdiak zehazteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako "Barne-kontrola ezartzeko gida" hartu da erreferentziatzat. Gida horretan, 32/2018 Foru Dekretuaren 13. eta 19. artikuluetan ezarritako betekizunez gain, jarduketa publikoetan objektibotasuna, gardentasuna, diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna bermatzeko beste batzuk ere jasotzen dira..

Oinarrizko baldintza orokorren aurretik, A letra dago. Baldintza horiek ez betetzeak ingera edo eragozpen etengarria sortuko du.

Oinarrizko baldintza gehigarrien aurretik, B letra dago. Baldintza horiek betetzen ez badira, eragozpen ez-etengarria sortuko da.

Gainera, kontuhartzaileak egokitzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, eta ohar horiek ez dute inola ere etete-ondoriorik izango kasuan kasuko espedienteen izapidetzean.

1. eranskinean zehaztu dira oinarrizko betekizunen aldez aurreko fiskalizazio- eta kontu-hartze mugatuko erregimenaren pean jartzea proposatzen diren gastu eta betebehar motak eta horietako bakoitzerako egiaztatu beharreko betekizunak.

Gastu motak honako arlo hauetan sailkatu dira:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

1. Langileak.
2. Kontratazioa, ondare-kontratuak eta kontratu pribatuak, eta ondare-erantzukizuna.
3. 40/2015 Legeari lotutako dirulaguntzak eta transferentziak, eta lankidetza-hitzarmenak.
4. Hirigintza.

Aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze araubide orokorra aplikatuko zaie gastu eta betebehar mota haiei, zeinentzat ez baita adostu aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuaren ondorioetarako oinarrizko baldintzen araubidea, eta zenbateko zehaztugabeko gastuei ere bai.

V.- Foru dekretuak, gai jakin batzuetan, toki-erakundeen erabakira igortzen du, batez ere udalbatzaren osoko bilkuraren bitartez hartu beharrekoetara, 21/2003 Foru Arauan eta foru dekretuan bertan ezarritako esparruaren eta mugen barruan. Bi testuak batera aztertuta, udal honek, barne-kontrolerako eredua taxutze aldera, honako hau adierazi beharko du:

a) Hala badagokio, oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea edo erregimena ezartzea.

b) Erantzuna baiezkoa bada, beste betekizun edo izapide gehigarri batzuk zehaztea, duten garrantzia dela-eta oinarrizko betekizunen araubidean sartu behar direnak.

c) Udalaren diruzaintzako eskubideen eta sarreren aurretiazko fiskalizazioaren ordez, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta ondorengo finantza-kontrola ezartzea, hala badagokio. Ordezkapena partziala bada, identifikatu beharko dira sarrera-kontzeptuak, zeinetan haiek ez diren aplikatu behar. Ordezkapena ezin izango da iritsi bidegabeko diru-sarreren itzulketetatik eratorritako ordenazio-egintzak eta ordainketa materialak ikuskatzera.

d) Kontrol-eredu berriaren eskakizunetara egokitzea udalaren antolamendua eta funtzionamendua (eta haren perimetroa osatzen duten erakundeena) eta barne-kontroleko organoaren beraren antolamendua (hargatik eragotzi gabe alkate dekretu bidez edo kontuhartzailetzaren instrukzio bidez ezarri beharreko egokitzapenak).

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Hori dela eta, batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**LEHENA**.- Onartzea gastuen eta betebeharren aurretiazko fiskalizazio- eta kontu-hartze mugatuko araubidea, Tolosako Udalean eginkizun kontu-hartzailea betetzeko, abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontroleko araubide juridikoa arautzen duenak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera (*Oinarrizko baldintzen aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea)*.

Aurretiazko fiskalizaziotik salbuetsitako gastuei finantza-kontrola egingo zaie gero, etengabeko kontrolaren modalitatean.

**BIGARRENA**.- Onartzea zer gastu eta betebehar dauden fiskalizazio- eta esku-hartze mugatuko araubidearen mende, eta zer oinarrizko baldintza orokor egiaztatu behar diren horietako bakoitzerako. Erabaki honen 1. eranskinean daude zehaztuta.

Espediente horiei beste fiskalizazio oso bat egin ahal izango zaie geroago, aipatutako fiskalizazioa eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak aplikatuz.

Aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartzearen araubide orokorra aplikatuko da 1. eranskinean jaso gabeko gastu motei eta betebeharrei dagokienez, bai eta zenbateko zehaztugabeko gastuei dagokienez ere.

**HIRUGARRENA**.- Onartzea zer betekizun edo izapide gehigarri egiaztatu behar diren oinarrizko baldintzen araubideko fiskalizazio eta esku-hartze mugatuko jarduerak gauzatzean. Erabaki honen 1. eranskinean daude zehaztuta betekizun eta izapide horiek.

**LAUGARRENA**.- Onartzea Udaleko diruzaintzako eskubideen eta sarreren aurretiazko fiskalizazioaren ordez, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta ondorengo finantza-kontrola ezartzea, eskubide eta sarreren gaineko eginkizun kontu-hartzailea betetzeko prozedura gisa, abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontroleko araubide juridikoa arautzen duenak, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Aurreko puntuan aipatzen den ordezkapen hori ezin izango da iritsi bidegabeko sarreren itzulketetatik eratorritako ordenazio-egintzak eta ordainketa materialak ikuskatzera.

**BOSGARRENA**.- Erabaki hau Tolosako Udalak izapidetutako espedienteei aplikatzea.

**SEIGARRENA**.- Erabakia Osoko Bilkurak onartu eta hurrengo egunean sartzea indarrean, eta haren ondoren hasten diren espediente, egintza eta erabaki guztiei aplikatzea, baita aurretik hasi diren baina aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze fasean ez dauden espediente, egintza eta erabaki guztiei ere.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du aurretiazko fiskalizazio mugatuaren araubidea.

8. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA 5/2021 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI.**

**ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 5/2021 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0600.160.01.151.10 2021 | GIZARTE SEGURANT.ZA KUOTAK. HIRIGINTZA | 139.611,00 | 60.700,00 | 200.311,00 |
| 1 0900.211.01.326.10 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. E.P.A-H.H.I. | 3.500,00 | 6.000,00 | 9.500,00 |
| 1 0700.221.99.153.20 2021 | BESTELAKO HORNIDURAK. BIDE PUBLIKOAK | 138.150,00 | 18.200,00 | 156.350,00 |
| 1 0100.226.99.912.00 2021 | BESTE ZENBAIT GASTU. GOBERNU ORGANOAK | 18.000,00 | 7.200,00 | 25.200,00 |
| 1 0300.227.01.920.30 2021 | GARBIKETA. UDALETXEA | 79.500,00 | 16.000,00 | 95.500,00 |
| 1 0800.227.01.326.20 2021 | GARBIKETA. MUSIKA ESKOLA | 55.500,00 | 15.000,00 | 70.500,00 |
| 1 0800.227.01.330.00 2021 | GARBIKETA. KULTURAKO ADMINISTRAZIO OROKORRA | 40.500,00 | 7.000,00 | 47.500,00 |
| 1 0800.227.01.333.00 2021 | GARBIKETA. ARAMBURU JAUREGIA | 39.500,00 | 4.000,00 | 43.500,00 |
| 1 0900.227.01.323.10 2021 | GARBIKETA. HAUR ESKOLA | 42.000,00 | 9.000,00 | 51.000,00 |
| 1 0900.227.01.323.20 2021 | GARBIKETA. SAMANIEGO IKASTETXEA | 115.000,00 | 28.000,00 | 143.000,00 |
| 1 0900.227.01.326.10 2021 | GARBIKETA. E.P.A-H.H.I | 13.000,00 | 2.000,00 | 15.000,00 |
| 1 0300.227.07.920.00 2021 | AZTERKETA LAN TEKNIKOAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA | 115.000,00 | 18.150,00 | 133.150,00 |
| 1 0700.227.07.153.00 2021 | AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. OBRATAKO ADMINISTRAZIOA | 60.000,00 | 10.000,00 | 70.000,00 |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0900.481.01.320.00 2021 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. HEZKUNTZA ZERBITZUA | 48.000,00 | 72.000,00 | 120.000,00 |
| 1 1300.481.01.172.00 2021 | IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK. INGURUMENA | 28.200,00 | 1.500,00 | 29.700,00 |
| 1 0700.609.01.153.20 2021 | BESTELAKO INBERTSIOAK | 484.000,00 | 16.000,00 | 500.000,00 |
| 1 0700.623.01.153.20 2021 | MAKINERIA. BIDE PUBLIKOAK | 3.000,00 | 7.500,00 | 10.500,00 |
| 1 0700.629.01.920.31 2021 | BESTELAKO INBERTSIOAK | 0,00 | 8.000,00 | 8.000,00 |
| 1 0300.211.01.920.30 2021 | ERAIKINEN MANTENTZE-LANAK. UDALETXEA | 45.000,00 | 5.400,00 | 50.400,00 |
| 1 0700.625.01.920.31 2021 | ZENBAIT ERAIKINETAKO ALTZARIAK | 10.000,00 | 1.900,00 | 11.900,00 |
| **GUZTIRA** | | 1.477.461,00 | 313.550,00 | 1.791.011,00 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 870.01 2021 | ALTXORTEKIKO GERAKINA | 313.550,00 |
| | | | |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **313.550,00** |

Kontuhartzaileak egindako txostena aztertu dute. Bertan adierazi du aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, batzorde honek

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## DIKTAMINATU DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2021 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

### KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 60.700,00 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 145.950,00 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 73.500,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 33.400,00 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **313.550,00** |

### FINANTZAKETA

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 313.550,00 |
| **GUZTIRA** | | **313.550,00** |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**Bigarrena.-** Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de

Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** 5/2021 Kreditu aldaketarako espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari.

## 9. 2020KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.

### ANTOLAKUNTZAKO BATZORDE INFORMATIBOAK, KONTUEN BATZORDE BEREZIARI DAGOZKION FUNTZIOEKIN, 2021EKO EKAINAREN 17AN EMANDAKO IRIZPENA

**Aurrekariak**

2020ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra aurkeztu da.

Kontuhartzaileak azaldu ditu Kontu Orokorra osatzen duten kontuak:

1. Udalaren Kontua
2. Iurreamendi Egoitzaren Kontua
3. Erretengibel SAren Kontua
4. Tolargi SLren Kontua
5. Tolosa Lantzen SAren Kontua
6. Tolosa Gasa SAren Kontua

Azaldu du, era berean, bakoitzaren egoeren eta kontuen edukia.

Kontu Orokorrari kontu horien egoera-orri integratu eta bateratuak gehituko zaizkio.

Dokumentu osagarrien artean Udalaren mende eta kontu orokorrean integratu gabe dauden entitate hauen urteko kontuak ere sartu dira:

1. Tolosaldea Garatzen SA
2. Zazpiturri SA
3. Apattaerrekako Industrigunea SL

Batzordekideek Kontu Orokorraren laburpena aztertu dute. Laburpen horretan honako dokumentu hauek bildu dira.

1. Udalaren dokumentazioa.

1.1. Egoera balantzea
1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
1.4. Diru-fluxuen egoera orria
1.5. Memoria
1.6. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

2. Iurreamendi Egoitzaren dokumentazioa.

2.1. Egoera balantzea
2.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
2.3. Diru-fluxuen egoera orria
2.4. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa
2.5. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

3. Erretengibel SAren dokumentazioa.

3.1.1. Egoera balantzea
3.1.2. Galera-Irabazien Kontua
3.1.3. Memoria
3.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa

4. Tolargi SLren dokumentazioa.

4.1. Urteko kontuak
4.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa

5. Tolosa Lantzen SAren dokumentazioa.

5.1.1. Egoera balantzea
5.1.2. Galera-Irabazien Kontua
5.1.3. Memoria
5.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa

6. Tolosa Gasa SAren dokumentazioa.

6.1. Urteko kontuak
6.2. Aurrekontuaren likidazioaren dokumentazioa

7. Dokumentazio osagarria.

7.1. Tolosaldea Garatzen SAren Urteko Kontuak
7.2. Zazpiturri SAren Urteko Kontuak
7.3. Apataerrekako Industrigunea SLren Urteko Kontuak

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

8. Aurrekontu bateratua

8.1. Sarreren aurrekontu bateratua
8.2. Gastuen aurrekontu bateratua
8.3. Aurrekontu bateratua xehatua

Ekitaldi bakoitzeko Kontu Orokorrari dagokionez, Kontu batzorde bereziak txostena eman beharko du hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen.

Kontu Orokorra eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena jendaurrean egongo dira hamabost egunez. Denbora horretan interesdunek erreklamazioak edo oharrak aurkeztu edo eragozpenak aurkitu ahal izango dituzte. Kontuen Batzorde Bereziak hauek aztertu ondoren, beste txosten bat emango du.

Kontu Orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, hala egokituz gero, uztailaren 31 baino lehen onar dezan.

**Araubide aplikagarria**

1- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa; 62, 63 eta 64. artikuluak.
2- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Toki Entitateen kontabilitatearen arau esparrua arautzen duena; 1. Eranskinaren II. kapitulua.

Kontu Orokorra behar bezala justifikatua geratu da, dokumentu horiek aztertu ondoren, eta Kontu Orokorra, Aurrekontuarekin, Gastuen Egoera aldatzeko erabakiekin, Aurrekontuaren Likidazioarekin, hala nola Aurrekontu-Ondare kontabilitatea osatzen duten beste liburu eta dokumentuekin konparatu eta gero.

Ikusirik aplikagarria den arautegia, jaulkitako txostenak eta espedientea tramitatzeko eta onartzeko prozedura, aurkeztutako proposamena bozkatu dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Begoña Tolosa Mendia, Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Kristina Pelaez Errazkin, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria.

Hori dela eta hau, batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

Lehena.- 2020ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorrari aldeko txostena ematea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Bigarrena.- Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, epealdi horretan interesdunek erreklamazioak, ingera edo eragozpenak zein oharrak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2020ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra.

**10.HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILAK KUDEATUTAKO HEZKUNTZA PROGRAMEN KONTURAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DITUEN OINARRIEI.**

**HERRITARRAK INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA.**

**AURREKARIAK**

2021eko maiatzaren 10ean, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak hezkuntza arloko dirulaguntzak erregulatzeko ordenantza sortzeko proposamen teknikoa egin zuen.

Hezkuntza Azpisailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio:

- Tolosako ikastetxeetan osagarriak diren jarduerak bultzatzea eta ikasleengan hainbat balio sustatzen dituzten jarduera edo programak diruz laguntzea.

Bestalde, Tolosatzen Tolosako Plangintza partekatuaren 2. fasean 2017-2027 Ekintza Plana onartu zen eta 2. ildo estrategikoan Hezkuntza Azpisailari dagozkion hainbat helburu definitu ziren:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Hezkuntza Komunitatea osatzen duten eragileen arteko koordinazioa bultzatzea, hezkuntzako erronkei erantzuteko eta baliabideen osagarritasuna lortzeko.
- Ikasketa ez formaleko eskaintza zabaltzea, udalerriko beharrei begira eta bitarteko berrien bidez.

Horregatik, Tolosako Udalak herriko hezkuntza zentroetako jardueran laguntzeko eta izaera hezitzailea duten ekintzak sustatzeko borondateari erantzun egokiagoa eman nahi dio. Bereziki, haur, nerabe eta gazteen garapen intelektual, afektibo, artistiko eta harremanezkoa helburu duten ekintzen, balioak sustatuko dituzten ekintzen, eta administrazioei ere badagokien kontziliazioa sustatzeko ekintzen estaldura publikoa bideratzeko.

Hori dena kontuan harturik, proposaturiko ordenantzak hezkuntzan eragiteko dirulaguntza lerroa xedatzen du, Tolosako irakaskuntza arautuko ikastetxeen edo irabazi-asmorik gabeko guraso elkarteen dirulaguntzak bideratzeko.

Txostenaren arabera, ordenantzaren proposamena interesdun guztiekin lantzeaz gain, dagokion informazioa udal webgunean ere argitaratu zen 15 lanegunez, alegazioak jasotzeko. Alegazio epealdian ez zen ekarpenik jaso.

**AZTERKETA JURIDIKOA**

**1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena**

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten; 17.1.25. artikuluaren arabera, udalerriek, besteak beste, esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: «...gizarte-garapena...». Bestalde, 20. apartatuan, «kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea» jasotzen du.

**2.- Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluak erregelamenduak eta Ordenantzak egiteko eta bere burua antolatzeko ahalak

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

esleitzen dizkie udalerriei, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan. Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluan, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta ordenantzak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

**3.- Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak**

**Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren** 24. eta hurrengo artikuluek udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, eta horren barruan dirulaguntzak emateko ahalmena onartzen zaie. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.

Herri Administrazioen dirulaguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikuluak, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duten oinarri arautzaileak onartu behar direla xedatzen du. Artikulu horren 3. atalak oinarrien publizitatea edo hedapena arautzen du, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar dira. Kasu honetan, oinarri arautzaile horiek Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

**3.** Dirulaguntzak emateko oinarrizko arauak zehaztu beharko ditu, gutxienez, honako alderdi hauek:

**a)** Dirulaguntzaren xedearen definizioa.

**b)** Dirulaguntza lortzeko onuradunek eta, hala badagokio, lege honetako 11. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatzen diren erakundeetako kideek bete beharreko baldintzak, eta eskabideak aurkezteko

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

modua eta epea.

**c)** Lege honetako 12. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsona juridikoek bete beharreko kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak.

**d)** Dirulaguntza emateko prozedura.

e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena.

**f)** Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak.

**g)** Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea.

**h)** Hala badagokio, dirulaguntza behar bezala justifikatzen dela bermatzeko kontabilitate-liburu eta erregistro espezifikoak zehaztea.

**i)** Onuradunak edo erakunde laguntzaileak, hala badagokio, dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua.

**j)** Organo emailearen alde eratu beharrekotzat jotzen diren berme-neurriak, eratzeko bitartekoak eta ezerezteko prozedura.

**k)** Aurretiazko ordainketak eta konturako ordainketak egiteko aukera, bai eta, hala badagokio, onuradunek jarri beharreko berme-araubidea ere.

**l)** Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea eragin dezaketen irkunstantziak.

**m)** Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarria edo bateraezina izatea, horiek edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenean, izan nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak

**n)** Dirulaguntzak ematean ezarritako baldintzen balizko ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak azkenean jasoko duen zenbatekoa zehazteko edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun-printzipioa bete beharko dute.

**-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren arabera:**

“2. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua.

1. Lege honen ondorioetarako, dirulaguntzatzat hartuko da lege honen 3. artikuluan jasotako subjektuetako edozeinek pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

xedapen oro, baldintza hauek betetzen baditu:

a) Dirulaguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.

b) Dirulaguntza emateko, helburu jakin bat bete behar da, proiektu bat gauzatu behar da, jarduera bat egin behar da, portaera berezi bat hartu behar da ─ordurako gauzatuta egon daitezke edo artean garatzeko─, edo egoera bat gertatu behar du, eta ezarritako betebehar material eta formalak bete behar ditu onuradunak.

c) Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburuak izan behar du onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea.

-1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikuluaren arabera:
“Dirulaguntzatzat hartuko da korporazioek toki-erakundeen kontura ematen duten zuzeneko edo zeharkako edozein laguntza, ekonomikoki baloratzeko modukoa, eta, horien artean, bekak, primak, sariak eta laguntza pertsonalerako gainerako gastuak”.

**Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren beharra aldez aurreko izaeraz**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzak erregulatzen dituenak, honela dio 8.1.artikuluan:

  “8. artikulua. Printzipio orokorrak.

  1. Herri-administrazioetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko du zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epe behar den helburu eta ondorio horiek lortzeko, zer kostu aurreikus daitezkeen eta zer finantzaketa-iturri dituzten, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

  2. Lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean, argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera bideratu behar dira helburuok, eta ondorioek ahalik eta distortsio txikiena eragin behar dute.

  3. Lege honetan aipatzen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

     a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

     b) Dirulaguntza eman duen administrazioak ezarritako helburuak

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

eraginkortasunez betetzea.

c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna".

Zentzu horretan, Udalbatzak, 2020-2022 urteetarako, Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Dirulaguntza lerro hau ez dago bertan aurreikusita, beraz, lehenik, sartu egin beharko litzateke.

**- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua:**

Honela dio:

"Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da".

**4.-Oinarrien izapidetzea:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, ordenantza honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezen.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea; osoko bilkurari dagokio.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango dute.

**5.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantza honen onespena udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.

**6.- Fiskalizazio txostena**

Jarduneko kontuhartzaileak 2021eko uztailaren 19an egindako fiskalizazio txostenaren arabera, ordenantza egokitu beharra dago prozeduraren instrukzio, ordenazio eta ebazpenerako organoei buruzko zuzenketak sartuz.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran, fiskalizazio txostenarekin bat eginez, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Garbiñe Marzol eta Kristina Pelaez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA:**

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea *Tolosako hezkuntza arloko dirulaguntzak erregulatzeko ordenantza*ri, fiskalizazio txostenarekin bat eginez, honako testu honen arabera:

***Ordenantza, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako hezkuntza programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituena.***

***Oinarriak***

*1. Xedapen orokorrak.*

*2. Onuradunak*

*3. Prozedura*

*4. Diruz laguntzeko gastuak*

*5. Dirulaguntza emateko irizpideak*

*6. Zuzkidura eta aurrekontuko partida*

*7. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak*

*8. Ebazpena*

*9. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea*

*10. Ordainketa aurreratuak eta dirulaguntzen ordainketa*

*11. Beste dirulaguntzen bateragarritasuna.*

*12. Publizitatea*

*13. Araudia*

*14 Datu pertsonalen babesa*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*ZIOAK AZALTZEA*

*Tolosako Udalak herriko hezkuntza zentroetako jardueran laguntzeko eta izaera hezitzailea duten ekintzak sustatzeko borondateari erantzun egokiagoa eman nahi dio. Horregatik, ordenantza honen bidez, Udalaren eskumenpekoak diren eta udal hezkuntza azpisailari dagozkion hezkuntza programak diruz laguntzeko irizpideak eta arauak jaso nahi dira. Bereziki, haur, nerabe eta gazteen garapen intelektual, afektibo, artistiko eta harremanezkoa helburu duten ekintzen, balioak sustatzeko dituzten ekintzen eta administrazioei ere badagokien lan, pertsona eta gizarte arloko erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzen estaldura publikoa bideratzeko.*

*Horregatik guztiagatik, udal dirulaguntza jarduerek bete behar dituzten printzipioak bermatzeko (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna), ordenantza hau egin da, parte hartzen duten udal organoen eta dirulaguntza onuradunen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko.*

***1. Xedapen orokorrak.***

*Ordenantza honen helburua da Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak kudeatutako eta Tolosako irakaskuntza arautuko ikastetxeek edo irabazi-asmorik gabeko guraso elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta haiek emateko prozedurak arautzea.*

*Ordenantza honen bidez diruz lagunduko diren jarduerak:*

- *Haur, nerabe, gazte eta familien edo bizikidetza-unitateen heziketan lagungarriak diren curriculumaz/eskolaz kanpoko programak; bereziki, haur, nerabe, gazte zein familien edo bizikidetza unitateen garapen intelektual, afektibo, artistiko eta harremanezkoa helburu duten eta balioak sustatzen dituzten ekintzak.*

- *Tolosako hezkuntza zentroetan familien zaintza eta lan-jarduera bateragarria egiteko kontziliazio programak.*

*Dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidezkoak izango dira.*

*Honako dirulaguntza lerro hau arautzen da oinarri hauetan:*

- *Tolosako ikastetxeetan curriculumaz/eskolaz kanpoko programak eta zaintza eta lan-jarduera bateragarria egiteko kontziliazio programak garatzeko dirulaguntzak ikastetxe eta guraso elkarteei.*

***2. Onuradunak.***

*Oinarri hauetan aipatzen den dirulaguntza honako hauek eskatu ahal izango dituzte:*

- *Tolosan egoitza nagusia duten Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeek.*

- *Hezkuntza arloko intereseko jarduerak gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko Tolosako ikasleen guraso elkarteek, betiere, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera, batik bat, Tolosako udalerrian garatzen dutenak.*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**3. Prozedura.**

*Dirulaguntzak emateko prozedura Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean eta oinarri hauetan ezarritakoa izango da.*

*Indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren zein bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorretan adostutako aurreikuspenen arabera, dirulaguntza jaso dezaketen gastuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:*

- *Batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea.*
- *Deialdian ezarritako epearen barruan egitea, deialdian espresuki kontrakoa xedatu ezean.*
- *Justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.*

**4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

*Dagokion deialdian zehaztuko dira diruz lagundu daitezkeen gastuak, betiere Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorreko 26. eta 27. artikuluetan jasotakoaren arabera.*

*Dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratatzean gehieneko portzentajea ezin izango da diruz lagundutako jardueraren % 50 baino handiagoa izan. Azpikontratatutako jarduera dirulaguntzaren % 20 baino handiagoa eta 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz egin beharko da, betiere, Tolosako Udalak aurretik eta espresuki hura gauzatzeko baimenik badago.*

*Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira legeriaren arabera eta Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan daudenak.*

*Honako hauek EZ dira inola ere dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko:*

- *Bankuko kontuetako interes zordunak.*
- *Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.*
- *Prozedura judizialek sortutako gastuak.*
- *Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.*
- *Errentaren gaineko zerga pertsonalak.*
- *Jarduera garatzeko erabiltzen diren onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak (Salbu DLOren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen bada eta deialdiak arau bereziak zehazten baditu gai honetan).*

**5. Dirulaguntza emateko irizpideak**

- *Urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatuko da.*
- *Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango du jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa.*
- *Dirulaguntzaren emakida dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren gehieneko mugaraino egingo da.*
- *Irizpide eta baremoen araberako puntuazioa:*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**HARTZAILEAK:**
Atal honetan baloratuko da programa osoan aurreikusten den Tolosan erroldatutako parte hartzaile kopurua, eta ea programa bideratua dagoen ikasle bekadun, hezkuntza komunitateko kide edo guraso/tutoreari.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Parte hartzaile kopurua**<br>Tolosan erroldatutako parte-hartzaile kopurua | 0,5 parte hartzaile bakoitzeko | | | |
| **Hartzaile mota** | Programak ikasle bekadunak ditu<br>4 | Programa ikasleei bideratuta dago<br>3 | Programa hezkuntza komunitateari bideratuta dago<br>2 | Programa gurasoei bideratuta dago<br>1 |

**HEZKUNTZA ZENTROA/ELKARTEA:**
Udalak antolatzen/sustatzen dituen programa/jardueretan erakundeak daukan parte-hartze maila neurtuko da, besteak beste, Kultura, Ingurumena, Berdintasuna, Euskara eta Gazteria sailetako foro eta jardueretan daukan parte-hartze aktiboa baloratuz (Euskararen Aholku Kontseilua, Berdintasun Mahaia, Agenda 30, Haurren hiria...). Kontuan hartuko da, 4/2005 Legeari jarraikiz, erakundearen zuzendaritzan sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkaritza izatea. Bestalde, kontuan hartuko da laguntzen den programan/jardueran boluntarioek egiten duten ekarpena.

| | |
|---|---|
| **Udal jardueretan parte hartzea** | 1 jarduera bakoitzeko |
| **Emakumeek % 40ko parte-hartzea zuzendaritzan** | 3 |
| **Boluntarioen laguntza**<br>Ea badagoen boluntarioen laguntza aurkeztu den programan. | 3 |

**JARDUERAK / PROGRAMA:**
Diruz laguntzen den programa edo jarduera urtean behin, noizbehinka edo ikasturte osoan garatzea ere ezberdin baloratuko da. Era berean, kontuan izango da jarduera ikastetxean edo herrian garatzen den, aurkeztutako programak daukan ekintza kopurua eta ekintza horien autofinantziazio maila.

Programan edo jardueran ezarritako hizkuntza-, hezkidetza- eta aniztasun-irizpideak ere neurtuko dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Programaren iraupena** | Ikasturte osoa<br>3 | Noizbehinkakoa<br>2 | Urtean behin<br>1 |
| **Programaren proiekzioa** | Herrian<br>2 | Ikastetxean<br>1 | |
| **Jarduera kopurua**<br>Programak dauzkan jarduerak: zeramika, dantza... | 0,5 jarduera bakoitzeko<br>(Ez dira kontuan hartuko jarduera bereko taldeak) | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Autofinantziazioa** | % 40-% 50<br>1 | % 51-% 60<br>2 | % 61-% 70<br>3 | % 71-% 80<br>4 | % 81-%90<br>5 | % 91-% 100<br>6 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Hizkuntza plangintza:**<br>Euskararen erabileran eragiteko esku-hartze planifikatuak izatea. | Ez dago | Hizkuntza plangintza jasota dago | Hizkuntza plangintza programan/jardueran integratuta dago | Hizkuntza plangintza erakundearen sistema osoan integratuta dago |
| | 0 | 1 | 2 | 3 |

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Hezkidetza irizpideak:** Neska eta mutilen arteko berdintasuna modu espezifikoan eta, aldi berean, zeharkako ardatz gisa txertatzea. | Ez dago | Hezkidetza irizpideak jasota daude | Hezkidetza irizpideak programan/jardueran integratuta daude | Hezkidetza irizpideak erakundearen sistema osoan integratuta daude |
| | 0 | 1 | 2 | 3 |
| **Aniztasunaren trataerarako neurriak:** ikasleen hezkuntza-premiak, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikasteko neurriak hartzea. | Ez dago | Aniztasunaren trataerarako neurriak jasota daude | Aniztasunaren trataerarako neurriak programan/jardueran integratuta daude | Aniztasun trataerarako neurriak erakundearen sistema osoan integratuta daude |
| | 0 | 1 | 2 | 3 |

***6. Zuzkidura eta aurrekontuko partida***

*Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren urteko deialdian adieraziko da zeintzuk diren dirulaguntzen zuzkidurak eta aurrekontu-partidak.*

*Emango diren dirulaguntzak Euskara eta Hezkuntza Sailaren aurrekontuaren kargura finantzatuko dira eta urteroko deialdian zehaztuko da emango den kopurua.*

***7. Erakunde onuradunaren betebeharrak***

*Hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:*

- *Dirulaguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera bereganatuko du.*
- *Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela dirulaguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak.*
- *Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu.*
- *Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzarioko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.*
- *Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalekoak egunean dituela egiaztatuko du.*

*Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:*

- *Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duen deialdian.*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- *Tolosako Udaleko organo eskudunak hala erabakitzen duenean, dirulaguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa dela-eta behar bezala justifikatutako kasuetan.*
- *Administrazio publikoei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako dirulaguntzak direnean, baldin eta dirulaguntzaren oinarri espezifikoetan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.*
- *Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko ematen zaizkien dirulaguntzetan.*

*Urriaren 13ko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Tolosako Udalak berak ziurtagiri bat egingo du Udaleko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko; ziurtagiri hori espedienteari erantsiko zaio.*

*Hori aplikatuko da baldin eta interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatu ez badu, eta eskubide hori berariaz adierazi beharko da. Kasu horretan, interesdunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.*

- *Lau urteko epean gordeko ditu jasotako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak (dokumentu elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.*
- *Organo emaileari jakinaraziko dio nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu baditu, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko.*
- *Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.*
- *Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan.*
- *Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, Tolosako Udalaren dirulaguntza jaso duela adieraziko du.*
- *Jarduera egitean, pertsonen oinarrizko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko ditu.*

*Elkarte eskatzaileek, euskarari dagokionez, 2018an Euskararen erabilera normalizatzeko planaren bidez onartu ziren hizkuntza irizpideetan zehaztutakoa bete beharko dute: «Dirulaguntzak: Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen dirulaguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat—, Udalak kontuan izango du diruz lagunduko den jardueraren hizkuntza... Zehazki, ondorengoa eskatuko du gainerakoetan:*

*a. Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanetan, Udalak euskaraz egiteko erraztasunak emango ditu.*
*b. Dirulaguntzaren xede den ekintzan euskararen erabilera bermatzea.*
*c. Dirulaguntzaren xede den ekintzaren publizitatean ere euskara erabiltzea.*

*Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatuko balitz, hizlari elebidunak hobestea, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea— euskaldunen hizkuntz eskubideak ere errespeta daitezen».*

*Bestalde, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 dekretuan laguntza eta dirulaguntzei buruzko 38. artikuluan xedatutakoa kontuan hartzekoa da:*

- *Lagundutako jarduera gauzatzean aplikatuko ditu onuradunak hizkuntza-irizpideak, honako printzipio hauek oinarri hartuta:*
  - *Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko da, diruz lagundu den jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

  - *Hizkuntza-irizpideak diruz lagundutako jarduerei lotuta egongo dira.*
  - *Onuradunak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez ziurtatu ahalko ditu.*
- *Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzea.*

• *Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. artikuluan hizkuntza sustatzeko ezarritako neurriak betez.*

*Era berean, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorreko 7. artikuluan ondorengo irizpidea ezartzen da: «Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzakeen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzun kidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna».*

*Eta otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, honako hauek ere kontuan hartuko dira:*

*a. Kultura-jarduera guztietan neurriak hartzea bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izatea.*
*b. Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik ez antolatzea eta ez egikaritzea gune publikoan.*
*c. Kultura jardueraren batean ─jai kutsukoak, artistikoak, kiroletakoak, eta euskararen normalizazioaren arlokoak─ sexuaren ziozko bereizketa ez egitea.*
*d. Erabakiak hartzeko eremuetan: emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurriak ezartzea pertsona anitzeko ordezkaritza orekatua bermatzeko: sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez.*

***8. Ebazpena***

*Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraikiz egingo da, hau da, sail arduradunari dagokio eskabideak baloratzea dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazio eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere irizpena onar dezan. Ondoren, irizpen hori organo eskudunaren eskuetan utziko da, ebatzi dezan:*

- *Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara eta Hezkuntza Saileko arduraduna.*
- *Azterketa: Euskara eta Hezkuntza Saileko arduraduna.*
- *Balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen saileko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.*
- *Ebazpena (organo eskuduna): Alkatetzari, zinegotzi delegatuari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.*
- *Jakinarazpen-epea: Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea ezin da 6 hilabetetik gorakoa izan, deialdi irekia izan ezik, kasu horretan, prozedura bakoitzean eskabideak aurkeztu eta ebazteko gehienezko epea deialdian zehaztuko da.*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## *9. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea*

*Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraikiz egingo da, eta Euskara eta Hezkuntza Sailaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.*

*Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau jaso beharko du:*

*a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Jarduketa-memoria memoria deskribatzailea da eta, gutxienez, hau izango da bere edukia:*

- *Elkartearen datuak*
- *Proiektuaren datuak*
- *Egindako jarduerak: izena, deskribapena, datuak …*
- *Hartutako izaera formaleko obligazioen egiaztapena*
- *Proiektuaren garapenaren deskribapena:*
    - *Erabilitako giza baliabideak, materialak eta azpiegiturak*
    - *Onuradunak*
    - *Lortutako emaitzak, aurreikusitakoekin konparatuta*
    - *Helburuen betetze maila*
    - *Alderdi positiboak eta negatiboak*
    - *Balorazioa eta etorkizunerako asmoak*

*Ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira. MEM-EU-20 inprimakia erabil daiteke.*

*b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non hauek jasoko diren:*

*Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua (GAS-EU agiria):*

- *Zerrenda horretan gastuen egiaztagiri guztiak jaso behar dira, banan-banan, multzokatu gabe (non eta ez den multzokatutako zerrendan jasotakoa eranskin batean), behar bezala sailkatuta gastu-kontzeptuen arabera eta amaieran, zenbateko osoa adieraziz.*
- *Zerrendan egoki identifikatu behar dira hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen- eta ordainketa-datak*
- *Azken zenbateko horrek diruz lagundutako proiektuaren edo jarduketaren kostu osoa adierazi behar du.*
- *Proiektuaren edo jardueraren euskarri diren dokumentu guztiek osatu behar dute zerrenda, eta ez diruz lagundutako zenbatekoa estaltzeko dokumentuek bakarrik.*

*Bestelako diru-sarreren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua:*

- *Baldin eta jarduerak, dirulaguntzaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, baliabide horien zenbatekoa eta jatorria ere jaso beharko dira.*

*Diru-sarreren eta gastuen balantzea (BAL-EU agiria):*

- *Gastuen eta sarreren zerrenda jardueraren balantze ekonomikoan jasoko da, kontzeptuen arabera laburbilduta.*

*Fakturak:guztiak/lagina:*

- *Gastuak fakturen bidez edo froga-balio baliokideko agirien bidez egiaztatu behar dira.*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- *Justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat. Ondorioz, ordainketa egin izana egiaztatzen duten agiriak erantsi behar zaizkie fakturei.*

*Egiaztatu beharko da dokumentuetako zenbatekoak bat datozela eta erakunde onuradunaren presidenteak edo idazkariak sinatu beharko ditu guztiak.*

***10. Beste dirulaguntzen bateragarritasuna.***

*Ordenantza honen kontura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein entitatek eman ditzakeen laguntzekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantziazioa gertatzen ez bada.*

*Gainfinantziazioa gertatzen bada, murriztu egingo da dirulaguntza, dagokion neurrira doitu arte.*

*Gainfinantziazioa hori itzulketa egiteko obligazio bera eskatzen duten beste laguntzekin batera gertatzen bada, itzuli beharreko diru-kopurua proportzionala izango da, hain zuzen ere, jarduera burutzeko kostu osoaren eta esleitutako laguntzaren araberako proportzioan.*

***11. Ordainketa aurreratuak eta dirulaguntzen ordainketa***

*Dirulaguntzak Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraikiz ordainduko dira.*

*Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko funts-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Nolanahi ere, azken zatiaren ordainketa egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da. Lehen zatian dirulaguntza osoaren % 75 ordainduko da eta bigarren zatian, gainerako % 25a.*

***12. Publizitatea***

*Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, eta ezin izango du ez hizkera ez irudi sexistarik erabili.*

*Txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektroniko/ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan Tolosako Udalaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrean, baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere.*

***13. Araudia***

*Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den guztian honako hauek aplikatuko dira:*

- *Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE).*
- *Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamendua (uztailaren 25eko BOE).*
- *Gizon eta Emakumeen arteko berdintasuna arautzen duen otsailaren 18ko 4/2005 Legea.*
- *Tolosako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.*

***14. Datu pertsonalen babesa***

*Datu Pertsonalen babesari buruz, ondorengo xedapenak aplikatuko dira besteak beste:*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- *2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.*
- *3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.*

*Udala izango da datu pertsonalak tratatuko dituen entitatea eta tratamenduaren ardura izango duena. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.*

*Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko eskubidea.*

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea Tolosako irakaskuntza arautuko ikastetxeei edo irabazi-asmorik gabeko guraso elkarteei.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

**LAUGARRENA.-** Zerbitzu zorroaren gaineko informazio agregatua, laburra eta argia ematea, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/16 Legearen 54.d) artikuluaren arabera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako hezkuntza programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen oinarriei.

**11. <u>PARTZIALKI ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUN KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUAREN 5.4. ARTIKULUARI EGINDAKO ALEGAZIOA, ETA AIPATUTAKO ERREGELAMENDUARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA.</u>**

**<u>HERRITARRAK INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA.</u>**

## AURREKARIAK

Azken urteotan, emakume-taldeen eta talde feministen lanari esker, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira gure herrian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Hala ere, asko dago egiteko oraindik emakumeen eta gizonen arteko erabateko aukera-berdintasuna lortzeko bidean, eta behar-beharrezkoa da bide horretan gizarte osoak parte hartzea, behar-beharrezkoa inplikazioa, gizartean bizirik dauden egoera onartezinak ezabatzeko, adibidez: eremu publikoan oraindik ere emakume gutxik parte hartzea; lana aurkitzeko zailtasun handiagoak; emakumeen segmentazio sektoriala eta profesionala, eta lan-baldintza kaskarrak; soldatetan desberdintasun handiak; etxeko lanetan eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko orduan erantzunkidetasunik eza; etengabeko erasoa emakumeen oinarrizko eskubideei indarkeriaren bidez.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunezkoak, 24.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena.

Tolosako Udalak 2008an onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 16. artikuluan, Berdintasun Kontseiluaren sorrera jasotzen da, gobernuan eta udal bizitza publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunean parte hartzea ahalbidetzeko, errazteko eta bermatzeko.

Halaber, ordenantzaren 17. artikuluan jasotzen denez, Osoko Bilkurak zehaztuko ditu Berdintasun Kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu-araubidea, Berdintasun Sailak proposatuta. Eta Ordenantza horren 18. artikuluan, parte hartzeko dirulaguntzak egituratzen dira, emakumeen presentzia, partaidetza eta aitorpena areagotzeko udal bizitzaren esparru guztietan.

Ildo horri jarraituz, Tolosako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020), 2. ardatzean. *Ahalduntzea eta Partaidetza*, 2.1.4.1 neurrian, udal Parekidetasun Batzordearen zeregina indartzeko beharra formulatzen da, batzorde horretan emakume elkartu edo ez elkartu gehiago sartuz eta udal politiken jarraipenean protagonismo handiagoa emanez.

Hala, Berdintasun Kontseilua (BK) tresna eraginkorra gerta daiteke udal politiketan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, erregelamenduaren proposamena interesdun guztiekin landu zen eta horren zirriborroa ikusgai egon zen Tolosako Udalaren webgunean, 2021eko otsailaren 2tik otsailaren 22ra, hain zuzen ere.

https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula/iragarkia-berdintasun-kontseilua

Jendaurreko aurretiazko epean ez zen inolako erreklamaziorik izan.

Jarraian, Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko martxoaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta aho batez bozkatu zuen eta irizpena onartzea proposatu zitzaion Osoko Bilkurari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2d artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua arautzeko Erregelamenduaren onespena plenoaren eskumena da. Udalbatzak, 2021eko martxoaren 25ean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, Erregelamenduari hasierako onarpena eman zion.

Halaber, Udalbatzak onartu zuen Erregelamendu hau informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratuta, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, onartu zuen epe horretan entzunaldia ematea Berdintasun Kontseilua osatuko duten eragileei.

Horrela, Berdintasun Kontseiluaren Erregelamenduaren proposamenaren zirriborroa ikusgai egon zen apirilaren 17tik maiatzaren 28ra arte.

Jendaurreko aurretiazko epe horretan, A.S.A.-k, 15***456H NAN zenbakidunak, iradokizun hau egin zuen (Err. Zk: 5407)

*"Ni, A.S.A, NAN 15***456H, Berdintasun Kontseiluaren erregelamenduari alegazio bat egin diot:*

**PUBLIKATU DENA :**

*5.4 Kontseilukideak eta ordezkoak hautatzerakoan kontuan hartuko da Udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela Udalaren helburua. Batzordekideak bi hizkuntzak jakitea hartu beharko da kontuan beraz.*

*5.4 En la elección de vocales y suplentes se tendrá en cuenta que el objetivo del Ayuntamiento es que la*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

| |
|---|
| *lengua de trabajo sea el euskera. Habrá que tener encuenta, por tanto, que la persona designada tenga el conocimiento de los dos idiomas.*<br>***PROPOSAMENA***<br>*5. 4 Kontseilukideak eta ordezkoak hautaretzakoan kontua hartuko da Udaleko lan hizkuntza  euskara izatea dela Udalaren helburua. Asmo hori lortzeko, batzordekideak euskara jakingo ez balu, behar diren baliabideak eskeiniko ditugu bere partehartzea bermatzeko.*<br>*5.4 En la elección de voales y suplentes se tendrá en cuenta que el objetivo del Ayuntamiento es que la lengua  sea el euskera. En el caso de que la persona designada no lo sepa, ofreceremos las herramientas necesarias para garantizar su participación.*<br><br>*2021-05-25*<br>*sinadura"* |

Alegazioaren azterketa:

A.S.A.ek 2021eko maiatzaren 28an egindako alegazioan Berdintasunaren Kontseiluko Erregelamenduaren behin-behineko proposamenaren 5.4 puntuarekiko desadostasuna agertu du.

Aipatutako 5.4 artikuluaren edukia 2018ko abenduaren 4ko Osoko Bilkuran onartutako Euskara Normalizatzeko Erabilera Planean ezarritako irizpidea da:

> *3.3.1. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak:*
>
> *Udal bileretako hizkuntza nagusia euskara izango da. Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan kontuan hartuko da Udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela Udalaren helburua. Batzordekideak bi hizkuntza jakitea hartu beharko da kontuan.*

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran, alegazioari erantzuteko teknikariek egindako txostenarekin bat eginez, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Garbiñe Marzol eta Kristina Pelaez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA:**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua arautzen duen Erregelamenduaren 5.4. artikuluari egindako alegazioa partzialki onartzea, eta artikuluaren idazketa aldatzea honako testu honen arabera:

• "Tolosako Udaleko lan hizkuntza euskara dela kontuan hartuz, Berdintasun Kontseiluko bilerak euskaraz egingo dira nagusiki. Kontseiluko kide guztiak euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, mezuak ulertzeko gai badira, bilera, nagusiki, euskaraz egin ahal izango da. Edonola ere, euskaraz egiteko erraztasunik ez dutenek gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.
• Kontseiluaren bilkura publikoetan, herritarrek autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie eskatu haiek aukeratu ez duten beste hizkuntza batean itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik. Beste hizkuntza batean itzulpenik egin behar bada, toki-entitateak egin beharko du itzulpena. Modu guztietan, Kontseiluak neurriak hartuko ditu euskaraz funtzionatzeko."

Testu oso definitiboa honako hau izango da:

**TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUN KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Azken urteotan, emakume-taldeen eta talde feministen lanari esker, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira gure herrian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Hala ere, asko dago egiteko oraindik emakumeen eta gizonen arteko erabateko aukera-berdintasuna lortzeko bidean, eta behar-beharrezkoa da bide horretan gizarte osoak parte hartzea, behar-beharrezkoa inplikazioa, gizartean bizi-bizirik dauden egoera onartezinak ezabatzeko, adibidez: eremu publikoan oraindik ere emakume gutxik hartzen dute parte; lana aurkitzeko zailtasun handiagoak dituzte; emakumeen segmentazio sektoriala eta profesionala

**REGLAMENTO DEL CONSEJO DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

En los últimos años, y gracias al esfuerzo de los grupos feministas y de mujeres, se han realizado importantes avances en materia de igualdad de mujeres y hombres en nuestro municipio. Sin embargo, aún es mucho lo que queda por hacer para la consecución de la plena igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, y en este camino es necesaria la implicación del conjunto de la sociedad, implicación necesaria para erradicar situaciones inaceptables que se siguen manteniendo en la sociedad, como la persistencia de una menor participación de las mujeres en el ámbito público, mayores dificultades de acceso al empleo,

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

dago, eta lan-baldintza kaskarrak dituzte; soldatetan desberdintasun handiak daude; etxeko lanetan eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko orduan erantzunkidetasunik ez dago; etengabeko erasoa jasaten dute emakumeen oinarrizko eskubideek indarkeriaren bidez.

segmentación sectorial y profesional de las mujeres y precariedad en sus condiciones en el empleo, diferencias salariales importantes, inexistencia de corresponsabilidad en las tareas domésticas y en el cuidado de las personas dependientes, además del ataque continuo a los derechos fundamentales de las mujeres a través de la violencia contra las mismas.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunezkoak, 24.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena».

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en su artículo 24.5 dispone que «la Administración de la Comunidad Autónoma promoverá la creación de una entidad que ofrezca un cauce de libre adhesión para la participación efectiva de las mujeres y del movimiento asociativo en el desarrollo de las políticas sociales, económicas y culturales y sea una interlocución válida ante las administraciones públicas vascas en materia de igualdad de mujeres y hombres».

Gure udalerriari dagokionez, Tolosako Udalak 2008an onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 16. artikuluan, Berdintasun Kontseiluaren sorrera jasotzen da, «emakumeek eta gizonek gobernuan eta udal bizitza publikoan baldintza beretan parte-hartzen dutela ahalbidetzeko, errazteko eta bermatzeko».

A nivel municipal, en el artículo 16 de la Ordenanza Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Tolosa (2008) se recoge la creación del Consejo de Igualdad, «con el fin de posibilitar, facilitar y garantizar la participación en igualdad de mujeres y hombres en el gobierno y en la vida pública municipal».

Halaber, ordenantzaren 17. artikuluan jasotzen denez, «Berdintasunerako Kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu araudia Udalbatzak zehaztuko du Berdintasunerako Zerbitzuak proposamena egin ostean».

En el artículo 17 de la Ordenanza se recoge que «la composición, competencias y régimen de funcionamiento del Consejo para la Igualdad vendrán determinadas por el Pleno a propuesta del Área de Igualdad».

Era berean, ordenantza horren 18. artikuluak honako hau xedatzen du: «...herriko esparru guztietan emakumeen presentzia, parte-hartzea eta errekonozimendu handiagoa bultzatze

Y el artículo 18 de la misma Ordenanza dispone que «con el fin de propiciar una mayor presencia, participación y reconocimiento de las mujeres en todos los ámbitos de la vida municipal, las

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

aldera, xede hori duten jarduerak egiteko asmoa duten elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaerek lehentasuna izango dute».

solicitudes de subvenciones que presenten asociaciones y organizaciones para actividades que favorezcan tal incremento en la presencia, participación y reconocimiento de las mujeres tendrán carácter prioritario».

Ildo horri jarraituz, Tolosako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020), 2. ardatzean. Ahalduntzea eta Partaidetza, 2.1.4.1 neurrian, udal Parekidetasun Batzordearen zeregina indartzeko beharra formulatzen da, batzorde horretan emakume elkartu edo ez elkartu gehiago sartuz eta udal politiken jarraipenean protagonismo handiagoa emanez.

Siguiendo en esta línea, en el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres (2015-2020) del Ayuntamiento de Tolosa, en el Eje 2. Empoderamiento y Participación, en la medida 2.1.4.1. se formula la necesidad de reforzar el papel de la Comisión de Paridad Municipal, con la incorporación de más mujeres asociadas o no asociadas en la misma y más protagonismo en el seguimiento de las políticas municipales.

Erregelamendu honen arabera, herritarren parte-hartzea helburu bat ez ezik, bitarteko bat ere bada, kontsultatik edo proiektuak definitzeko eranskin tekniko batetik harago doana. Hala, bitarteko honek sustatzen duena da jarrera edo pentsamendu kritiko bat eta erabakiak hartzea, herritar aktiboak izateko oinarri gisa.
Parte-hartze hori eraginkorra izan dadin, edozein prozesutan parte hartzen duten pertsonek ez dute hori gonbidapen gisa sentitu behar, eskubide gisa baizik. Gainera, sentitu behar dute parte-hartzeak eragina izango duela eraldatu nahi den prozesuan edo haien bizitzei eragiten dieten politiken definizioan.

Para este reglamento, la participación ciudadana, además de un medio, es un objetivo, que va más allá del carácter consultivo o un anexo técnico a la definición de los proyectos. Ha de considerarse como un medio que fomenta una actitud o pensamiento crítico y la adopción de decisiones como base para una ciudadanía activa.
Para que esta participación sea efectiva, las personas que participan en cualquier proceso deben sentir la participación como un derecho y no como una invitación. Deben también tener la sensación de que la participación tendrá un impacto sobre el proceso que se pretende transformar o en la definición de las políticas que afectan a sus vidas.

Era berean, herritarren parte-hartzeak printzipio orokor hauek bete beharko ditu eta orientabide izan: hurbiltasuna, inklusioa, aniztasuna eta eraginkortasuna.

Así mismo, la participación ciudadana se deberá regir y orientar bajo los principios generales de cercanía, inclusión, diversidad y eficiencia.

## I. TITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

## TÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

### 1. artikulua.- Araudiaren helburuak

### Artículo 1.- Objeto del reglamento

Erregelamendu honen xedea da Tolosako

Este reglamento tiene como objeto la

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Udaleko Berdintasun Kontseilua arautzea.

regulación del Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

**2. artikulua.- Izaera**

**2.1.-** Berdintasun Kontseilua kide anitzeko partaidetza-organoa da, eta aholkularitzarako, informaziorako, eztabaidarako, azterketarako eta proposamenerako gune gisa eratzen da. Organo horren helburua da Tolosako emakumeen parte-hartze demokratikoa bermatzea, zertarako-eta emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren printzipioa garatu eta bultzatzeko, udalerriko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren eremu guztietan.

**2.2.-** Legitimitate eta lidergo nahikoa aitortzen zaio berdintasun-politikei buruzko asmoak eta proposamenak jasotzeko gune bihur dadin. Eta, era berean, izan dadila gune bat irizpideak zehazteko eta udal sail eta erakundeei gomendioak eman ahal izateko, bere eskumeneko gaietan ildoak edo gidalerroak orientatzeko.

**2.3.-** Kontseilu hau aholku-emailea da, hau da, gaitasuna du lotesleak izango ez diren iritziak emateko eta proposamenak egiteko, baina beharrezkoak diren mekanismoak eta bideak ere ezarriko ditu, planteatutako iradokizunek udal jardueran eragina izan dezaten.

Ildo horretan, Udalaren erabakiak Kontseiluak egindako proposamen eta ekarpenetatik aldentzen badira, arrazoitu egin beharko du zergatia.

**2.4.-** Erregelamendu honek arautuko du Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua.

**Artículo 2.- Naturaleza**

**2.1.-** El Consejo de Igualdad es un órgano colegiado de participación constituido como espacio para el asesoramiento, la información, el debate, el estudio y la propuesta. Este órgano tiene como objetivo garantizar la participación democrática de las mujeres de Tolosa en el desarrollo e impulso del principio de igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres, en los diferentes ámbitos de la vida política, económica, social y cultural del municipio.

**2.2.-** Se le reconoce la legitimidad y el liderazgo suficiente para que se convierta en un espacio que recoja aspiraciones y propuestas sobre las políticas de igualdad, y, así mismo, que pueda definir criterios y emitir recomendaciones a las diversas áreas y entidades municipales que sirvan para orientar las líneas o directrices en materia de su competencia.

**2.3.-** Este Consejo tiene carácter consultivo, esto es, capacidad para emitir juicios y hacer propuestas que no serán vinculantes, pero establecerá los mecanismos y los cauces necesarios para que las sugerencias planteadas puedan tener influencia en la actividad municipal.

En este sentido, el Ayuntamiento deberá motivar sus resoluciones en el supuesto de que se aparten de las propuestas y aportaciones realizadas por el Consejo.

**2.4.-** El Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa se regirá por el presente reglamento.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**3. artikulua.- Kontseiluaren helburuak**

Hauexek dira Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluaren funtsezko helburuak:

**3.1.-** Tolosako emakumeen parte-hartzea bultzatzeko gune bat eskaintzea, emakumeen parte-hartze aktiboa bermatuko duena eta berdintasunaren arloko erabakiak hartzeko prozesuan eragiteko beharrezkoak diren mekanismoak eta bideak ezarriko dituena.

**3.2.-** Mugimendu Feminista eta emakume-taldeak aitortzen laguntzea, haien eskubideak defendatzea eta zabaltzea, eta emakumeek jarduera-eremu eta bizitzako eremu guztietan benetan parte har dezaten sustatzea.

**3.3.-** Sustatzea emakumeen elkarte eta talde feministen eta gainerako erakundeen arteko lankidetza, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako politika publikoak bultzatzeko.

**3.4.-** Zaintzea udal politikek, programek eta zerbitzuek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa berma dezaten.

**3.5.-** Zaintzea aukera- eta tratu-berdintasuna eraginkorra izan dadin eta zaurgarritasun edo babesgabetasun bereziko egoera jasaten duten emakume guztiei aplika dakien, egoera horren arrazoia denean jatorria, gutxiengo nazional, etnia edo klase sozial batekoa izatea, kultura, hizkuntza, desgaitasunen bat, erlijioa, adina, sexua aldatzea edo berresleitzea, sexu-orientazioa, iritzi politikoa, ondarea edo beste edozein.

**4. artikulua.- Kontseiluaren eginkizunak**

Adierazitako helburuak lortzeko,

**Artículo 3.- Objetivos del Consejo**

Son objetivos esenciales del Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa los siguientes:

**3.1.-** Ofrecer un espacio para favorecer la participación de las mujeres de Tolosa, garantizar la participación activa de éstas y establecer los mecanismos y cauces necesarios para incidir en el proceso de toma de decisiones en materia de igualdad.

**3.2.-** Contribuir al reconocimiento del Movimiento Feminista y grupos de mujeres, defender y divulgar los derechos de éstas y promover su efectiva participación en los diferentes ámbitos de actividad y espacios de la vida.

**3.3-** Fomentar la cooperación y colaboración entre las asociaciones y grupos de mujeres feministas y demás entidades en la promoción de las políticas públicas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres.

**3.4.-** Velar por que las políticas, programas y servicios municipales garanticen el principio de igualdad de mujeres y hombres.

**3.5.-** Velar por que la igualdad de oportunidades y de trato sea efectiva y se aplique a todas las mujeres que sufren situación de especial vulnerabilidad o desamparo, sea por razón de su origen, pertenencia a una minoría nacional, etnia, clase social, cultura, idioma, discapacidad, religión, edad, cambio o reasignación de sexo, orientación sexual, opinión política, patrimonio o cualquier otro aspecto.

**Artículo 4.- Funciones del Consejo**

El Consejo de Igualdad desarrollará las

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Berdintasun Kontseiluak honako eginkizun hauek beteko ditu:

**4.1.-** Defendatzea eta zabaltzea emakumeen eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak.

**4.2.-** Elkarrizketa-gune izatea udalerriko elkarte feministen eta emakume-taldeen eta Tolosako Udalaren artean, berdintasun politikei dagokienez.

**4.3.-** Lankidetzan aritzea eskumena duen udal sailarekin, lehentasunak eta irizpideak zehazteko sailetako berdintasun-planak, programak eta zerbitzuak egiteko, aplikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, eta haien kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna zaintzea.

**4.4.-** Administrazioari iradokizunak proposatzea eta formulatzea, berdintasunaren arloko helburuak bete ditzan. Horretarako, txostenak, proposamenak eta eskaerak egingo ditu, bere ekimenez edo eskatzen zaionean.

**4.5.-** Sustatzea sexu eta/edo genero arrazoiengatiko diskriminazioaren eremuarekin lotutako azterlanak eta txostenak egin daitezen, eta bideratzea kontseiluan ordezkatuta ez dauden elkarte, erakunde edo kolektiboek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikei buruz egindako ekimenak, iradokizunak, eskaerak eta eskakizunak.

**4.6.-** Komunikazioa, harremanak eta trukea bultzatzea Tolosako eta Tolosaldeko elkarte feministen eta emakume-taldeen artean.

**4.7.-** Koordinazioa, lankidetza eta parte-hartzea bultzatzea Protokoloaren Koordinazio Mahaiarekin eta Hezkidetza Mahaiarekin, bai eta indarkeria matxistaren aurka jarduten duten beste

siguientes funciones para la consecución de los fines señalados:

**4.1.-** Defender y divulgar los derechos políticos civiles, sociales, económicos y culturales de las mujeres.

**4.2.-** Servir como espacio de interlocución entre las diferentes asociaciones feministas y grupos de mujeres del municipio y el Ayuntamiento de Tolosa, en lo referente a las políticas de igualdad.

**4.3.-** Colaborar con el área municipal competente en la definición de las prioridades y criterios que han de regir en la elaboración, aplicación, nivel de ejecución y evaluación de los planes, programas y servicios de igualdad de las diferentes áreas, y velar por la calidad, eficacia y transparencia de los mismos.

**4.4.-** Proponer y formular sugerencias a la administración para el cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad, mediante la emisión de informes, propuestas y peticiones por iniciativa propia, o cuando le sea solicitada.

**4.5.-** Promover la realización de estudios e informes vinculados al ámbito de la discriminación por razón de sexo y/o género, así como canalizar las distintas iniciativas, sugerencias, demandas y peticiones provenientes de asociaciones, entidades o colectivos no representados en el Consejo en relación con las políticas de igualdad de mujeres y hombres.

**4.6.-** Impulsar la comunicación, relación e intercambio entre asociaciones feministas y grupos de mujeres de Tolosa y Tolosaldea.

**4.7.-** Favorecer la coordinación, colaboración y participación con la Mesa de Coordinación del Protocolo y la Mesa de Coeducación, así como con otras entidades, asociaciones y organizaciones

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

erakunde, elkarte eta antolakunde batzuekin ere.

que actúan contra la violencia machista.

**4.8.-** Organo eskudunetan bideratzea Kontseiluari jakinarazten zaizkion jokabide diskriminatzaileen salaketak, legeria eskudunean adierazitako moduan. Eta, hala badagokio, salaketa publikoa sustatzea.

**4.8.-** Canalizar ante los órganos competentes las denuncias de conductas discriminatorias que sean puestas en conocimiento del Consejo, en los términos planteados en la legislación competente, y, en caso que proceda, promover la denuncia pública.

**4.9.-** Kontseiluaren jardueren urteko plana sustatzea ikasturte bakoitzaren hasieran, eta plan horren amaieran memoria bat aurkeztea, non jasoko diren egindako ekintzen ebaluazioa, lortutako akordioak eta horien garapenaren balorazioak.

**4.9.-** Promover un Plan Anual de Actividades del Consejo al inicio de cada curso, y presentar al final del mismo una memoria donde se recojan la evaluación de las acciones realizadas, los acuerdos alcanzados y las valoraciones de su desarrollo

**4.10.-** Kontseiluaren jarduketa, jarduera, informazio eta dokumentu guztien berri ematea, aldizka, modu arin eta interaktiboan.

**4.10.-** Informar periódicamente de manera ágil e interactiva sobre todas las actuaciones, actividades e informaciones y documentos del Consejo.

Eginkizun horiek bete ahal izateko, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Udalaren ekintzen berri eman beharko du, berdintasun politikei dagokienez, eta Kontseiluaren esku jarri beharko ditu bere eginkizunak eraginkortasunez garatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren tresnak.

Para poder desarrollar estas funciones, el Departamento de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa deberá informar de las acciones del Ayuntamiento en relación con las políticas de igualdad, y poner a disposición del Consejo los instrumentos necesarios para garantizar el desarrollo eficaz de sus funciones.

## II. TITULUA
## KONTSEILUAREN OSAERA

## TÍTULO II
## COMPOSICIÓN DEL CONSEJO

### 5. artikulua.- Kontseiluaren osaera

### Artículo 5.- Composición del Consejo

**5.1.-** Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluan honako talde eta kolektibo hauek egongo dira ordezkatuta:

**5.1.-** En el Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa estarán representados los siguientes grupos y colectivos:

a) Tolosako udalerrian diharduten erakunde feminista eta emakumeen taldeak, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak hala dihardutela egiaztatzen badu.

a) Las organizaciones feministas y grupos de mujeres que actúen en el municipio de Tolosa, si así lo acredita el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

b) Gainerako elkarte edo erakundeetako emakumeen sekzioak, baldin eta, estatutuetan edo beren organoek hala erabakita, autonomia funtzionala aitortuta badute eta ordezkaritza-organo propioak badituzte hirugarrenen aurrean, beren eskumen espezifikoko gaietan. Sekzio horiek jardueren memoria baten bidez egiaztatu beharko dute emakumeen eskubideen alde egindako lana.

b) Las secciones de mujeres del resto de asociaciones u organizaciones, que tengan reconocida, estatutariamente o por acuerdo de sus órganos, autonomía funcional, con órganos propios de representación ante terceros en temas de su específica competencia. Estas secciones tendrán que acreditar a través de una memoria de actividades su trabajo en defensa de los derechos de las mujeres.

c) Tolosan ordezkaritza duten sindikatuetako emakumeen sekzioak edo idazkaritzak, berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak, zeinak jarduera memoria batean egiaztatu behar diren.

c) Las secciones o secretarías de mujeres de los sindicatos con representación en Tolosa, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad, que deberán ser acreditadas en una memoria de actividades.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lan egitearekin lotura zuzena duten helburu eta/edo jarduera nagusiak dituzten elkarteak, baldin eta horri buruzko jarduera-memoria bat egiaztatzen badute eta kontseiluan duten ordezkaria emakumea bada.

d) Las asociaciones cuyo principal objetivo y/o actividad esté relacionado de manera directa con trabajar por alcanzar la igualdad de mujeres y hombres, siempre que acrediten una memoria de actividades a tal efecto y su representación en el Consejo sea a través de una mujer.

e) Hezkidetza Mahaiaren eta genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloko Mahaiaren ordezkari bana.

e) Una representación de la Mesa de Coeducación y otra de la Mesa del Primer Protocolo Local de actuación y coordinación interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres afectadas por la violencia de género y agresiones sexuales.

f) Halaber, Kontseilu horretako kide izango dira alkatea eta Udalean ordezkaritza duten talde politikoetako zinegotzi bana.

f) Formarán también parte de este Consejo, la alcaldesa y una concejala o concejal de cada grupo político con representación en el Ayuntamiento.

**5.2.-** Erakunde bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da (titularra eta ordezkoa). Horretarako, izendapena egiaztatu beharko da lehendakariak edo idazkari teknikoak sinatutako agiri baten bidez.

**5.2.-** Se designará una representación (titular y suplente) por cada entidad. A los efectos, deberá acreditarse el nombramiento mediante el correspondiente documento suscrito por la presidencia o por la secretaria técnica.

**5.3.-** Kontseilu honetan emakumeek parte har dezakete maila indibidualean,

**5.3.-** Este Consejo podrá contar con la participación de mujeres a nivel individual,

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

edo erakundeek ere parte hartu ahal izango dute aholkulari lanetan; nahiz eta Kontseiluko kide ez izan, hitza izango dute, baina botorik ez.

Ondorio horietarako, Berdintasun Sailak erregistro bat sortuko du Kontseiluan maila indibidualean parte hartu nahi duten emakumeak inskribatzeko, betiere berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten badituzte. Jarduera eta programa horiek jarduera-memoria batean egiaztatu beharko dira, eta Kontseiluaren Osoko Bilkuran hala egitea erabaki beharko da.

**5.4.-** Kontuan hartuta Tolosako Udaleko lan hizkuntza euskara dela, Berdintasun Kontseiluko bilerak euskaraz egingo dira nagusiki. Kontseiluko kide guztiak euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, mezuak ulertzeko gai badira, bilera, nagusiki, euskaraz egin ahal izango da. Edonola ere, euskaraz egiteko erraztasunik ez dutenek gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.

Kontseiluaren bilkura publikoetan, herritarrek autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, eta ezingo zaie eskatu haiek aukeratu ez duten beste hizkuntza batean itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik. Beste hizkuntza batean itzulpenik egin behar bada, Udalak egin beharko du itzulpena. Nolanahi ere, Kontseiluak neurriak hartuko ditu euskaraz funtzionatzeko. (19. artikulua, 179/2019 Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa).

así como entidades en calidad de asesoras, que, aunque no sean miembras del Consejo, tendrán voz pero no tendrán voto.

A estos efectos, el Área de Igualdad creará un registro para inscribir a las mujeres que estén interesadas en participar a nivel individual en el Consejo, siempre que estas realicen actuaciones y programas en materia de igualdad, que deberán se acreditadas en una memoria de actividades, y que así se acuerde en el Pleno del Consejo.

**5.4.-** Teniendo en cuenta que la lengua de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa es el euskera, las reuniones del Consejo de Igualdad se realizarán principalmente en euskera. Cuando no todas las vocales del Consejo tengan capacidad de expresarse en euskera, pero todas ellas comprendan los mensajes en esta lengua, la reunión podrá desarrollarse principalmente en euskara, garantizando que quienes no tengan facilidad de expresarse en euskara lo puedan hacer en castellano.

En las sesiones públicas del Consejo, los ciudadanos y ciudadanas podrán emplear cualquiera de las lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma, sin que pueda exigírseles la traducción o explicación alguna en la lengua que no hubieran elegido para expresarse. La traducción al otro idioma oficial, de ser precisa, será realizada por el Ayuntamiento. En todo caso, el Consejo adoptará medidas tendentes para su funcionamiento en euskera. (Artículo 19 Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## III. TITULUA KONTSEILUAREN EGITURA, ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

**6. artikulua.- Kontseiluaren egitura**
Berdintasun Kontseiluak egitura hau izango du:

- Lehendakaritza

- Kontseiluaren Osoko Bilkura

**7. artikulua.- Lehendakaritza**

**7.1.-** Tolosako Udaleko alkatea izango da batzordeburua, eta eginkizun hori utzi ahal izango du berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu eta garatzeko ardura duen saileko zinegotziaren esku.

**7.2.- Hauexek dira lehendakariaren eskumenak:**

**7.2.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkuretarako deialdia egitea, bilkuretako buru izatea eta bilkuretako gai-zerrenda finkatzea. Horretarako, beti hartuko ditu kontuan Berdintasun Sailak eta Kontseiluaren Osoko Bilkurako elkarte, talde eta pertsonek egindako proposamenak.

**7.2.2.-** Parte-hartzea sustatzea eta bermatzea, eztabaida moderatzea, eztabaidak bideratzea, akordioak eta ondorioztapenak lortzea, erabakiak gauzatzea, eta bozketak ebaztea, berdinketarik gertatuz gero.

**7.2.3.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako erabakien berri ematea Udal Korporazioari.

**7.2.4.-** Kontseiluaren, Gobernu Batzarraren eta Udaleko kudeaketa-organoen arteko koordinazioa sustatzea, bai eta lan-batzordeen eta informazio-

## TÍTULO III ESTRUCTURA, ATRIBUCIONES Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO

**Artículo 6.- Estructura del Consejo**
El Consejo de Igualdad contará con la siguiente estructura:

- La Presidencia

- El Pleno del Consejo

**Artículo 7.- La Presidencia**

**7.1.-** La Presidencia será ostentada por la alcaldesa o alcalde del Ayuntamiento de Tolosa, que podrá delegar esta función en la concejala o concejal responsable del Área de Igualdad, encargada del diseño, impulso y desarrollo para las políticas de igualdad.

**7.2.- Son atribuciones de la Presidencia:**

**7.2.1.-** Convocar, presidir las sesiones y fijar el orden del día de las sesiones del Pleno. Para ello, tendrá en cuenta en todo caso las propuestas formuladas tanto por el Área de Igualdad como por las asociaciones, grupos y personas que componen el Pleno.

**7.2.2.-** Promover y garantizar la participación, moderar el debate, dirigir las deliberaciones, obtener acuerdos y conclusiones, ejecutar los acuerdos y dirimir las votaciones en caso de empate.

**7.2.3.-** Informar a la Corporación Municipal de los acuerdos adoptados por el Pleno del Consejo.

**7.2.4.-** Promover la coordinación entre el Consejo y la Junta de Gobierno y los órganos de gestión del Ayuntamiento, así como entre las diferentes comisiones de

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

batzordeen artekoa ere, informazioa trukatzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, baterako neurriak eta jarduerak proposatzeko.

trabajo e informativas, con el objetivo de intercambiar información y, si se estima necesario, proponer medidas y actuaciones conjuntas.

**7.2.5.-** Zaintzea Kontseiluaren helburuak betetzen direla eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dagoen araudian xedatutakora egokitzen direla.

**7.2.5.-** Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.

**7.2.6.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak proposatuta, parte hartzera gonbidatzea bai politikariak (Korporazioko zinegotziak), bai teknikariak, entitateak, erakundeak, elkarteak eta azterketa-gai jakin bateko adituak, baldin eta horien iritzia kontrastatu nahi bada.

**7.2.6.-** A propuesta del Pleno del Consejo, invitar a participar tanto al personal político (concejalas y concejales de la Corporación) como al personal técnico, instituciones, entidades, asociaciones y personas expertas en un tema concreto de estudio o cuya opinión se quiera contrastar.

**8. artikulua.- Kontseiluaren Osoko Bilkura**

**Artículo 8.- El Pleno del Consejo**

**8.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkura da organo gorena, eta honako hauek osatuko dute:

- Tolosako Udaleko alkatea, legealdi honetan Berdintasun Saileko arduradun politikoa dena.
- Berdintasun Saileko teknikariak (hitza bai, baina botorik ez).
- Emakume-elkarteen eta erakunde feministen ordezkari bana eta ordezko bana.
- Tolosako gainerako elkarte edo erakundeetako emakumeen sekzioetako ordezkari bana eta ordezko bana. Berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak izan behar dute sekzio horiek.
- Udalerrian presentzia duten sindikatuetako emakumeen sekzio edo idazkaritzetako ordezkari bana eta ordezko bana. Berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak izan behar dute sekzio horiek.

**8.1.-** El Pleno es el órgano máximo del Consejo y estará compuesto por:

- La alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa, responsable política en esta legislatura del Área de Igualdad.
- Las técnicas del Área de Igualdad (con voz pero sin voto).
- Una representante y suplente de cada una de las asociaciones de mujeres y de las organizaciones feministas.
- Una representante y suplente de cada sección de mujeres del resto de asociaciones u organizaciones de Tolosa, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad.
- Una representante y suplente de cada sección o secretaría de mujeres de los sindicatos con presencia en el ámbito municipal, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Hezkidetza Mahaiaren eta genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloko Mahaiaren ordezkari bana eta ordezko bana.

- Una representante y suplente de la Mesa de Coeducación y otra representante y suplente de la Mesa del Primer Protocolo Local de actuación y coordinación interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres afectadas por la violencia de género y agresiones sexuales.

- Udal ordezkaritza duten talde politikoetako zinegotzi bana eta ordezko bana.

- Una concejala o concejal y suplente de cada grupo político con representación municipal.

Udal Korporazioko talde politiko bakoitzak zinegotzi bat izendatuko du bere taldeko ordezkari.

Cada grupo político de la Corporación Municipal designará a su concejala o concejal como representante de su grupo.

Talde, kolektibo edo erakunde bakoitzeko ordezkariak ordezko gisa arituko den pertsonaren izendapena egiaztatu beharko du idatzi baten bidez.

La persona representante de cada grupo, colectivo u organización deberá acreditar el nombramiento de la persona que ejerza la suplencia a través de un escrito

Udaleko Idazkaritza teknikoak izendapenak egiaztatu ondoren, Berdintasun Kontseilua eratuko da.

Una vez que la Secretaría técnica del Ayuntamiento haya verificado los nombramientos, se constituirá el Consejo de Igualdad.

**9. artikulua.- Osoko Bilkuraren eskumenak**

**Artículo 9.- Atribuciones del Pleno**

**9.1.-** Kontseiluaren ildo eta jarduera estrategikoak zehaztea.

**9.1.-** Determinar las líneas y actuaciones estratégicas del Consejo.

**9.2.-** Urteko Jarduera Plana eta dagokion aurrekontua ebaluatzea eta onartzea.

**9.2.-** Evaluar y aprobar el Plan Anual de Actividades y su correspondiente presupuesto.

**9.3.-** Gai-zerrendako gaiei buruzko beharrezko informazioa eta dokumentazioa eskatzea, eztabaidatzeko irizpide nahikoak izan ahal izateko.

**9.3.-** Solicitar la información y documentación necesaria sobre los asuntos incluidos en el orden del día para poder tener los criterios suficientes para su deliberación.

**9.4.-** Berdintasunaren arloko politikei, programei eta zerbitzuei buruzko proposamen eta txostenak proposatzea, eztabaidatzea eta horiei buruzko iritzia ematea.

**9.4.-** Plantear, debatir y pronunciarse sobre las diferentes propuestas e informes en relación con las políticas, programas y servicios en materia de igualdad.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**9.5.-** Kontseiluan emakumeen elkarte edo kolektibo berriak sartzea proposatzea.

**9.5.-** Proponer la incorporación de nuevas asociaciones o colectivos de mujeres al Consejo.

**9.6.-** Udalbatzaren Osoko Bilkurari Erregelamendu hau onartzea proposatzea, eta dagozkion iradokizunak, zuzenketak eta aldaketak proposatzea.

**9.6.-** Proponer al Pleno de la Corporación la aprobación de este Reglamento así como proponer las oportunas sugerencias, correcciones y modificaciones.

**9.7.-** Kontseiluari dagokion beste edozein, baldin eta Kontseiluaren Lehendakaritzari berariaz esleitu ez bazaio.

**9.7.-** Cualquier otra que, correspondiendo al Consejo, no estén expresamente atribuidas a la Presidencia del mismo.

**10.- Kontseiluaren Osoko Bilkuraren funtzionamendua**

**10.- Funcionamiento del Pleno**

**10.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak urtean gutxienez sei aldiz egingo du ohiko bilkura, lehendakariak deituta.

**10.1.-** El Pleno del Consejo se reunirá en sesión ordinaria, al menos seis veces al año, a convocatoria de la Presidencia.

**10.2.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak ezohiko bilkura egingo du Lehendakaritzak hala erabakitzen duenean, edo urtean gehienez 3 aldiz ere bilera egin ahal izango du Kontseiluko elkarte edo kideen % 50ek gutxienez hala eskatuta.

**10.2.-** El Pleno del Consejo se reunirá con carácter extraordinario, cuando así lo decida la Presidencia, o un máximo de tres veces al año a petición de un número de asociaciones o componentes del Consejo no inferior al 50 %.

**10.3.-** Kontseiluaren Osoko Bilkuretako deialdia egin aurretik, gaien zerrenda bat bidaliko da eta 2 egun balioduneko epea ezarriko da, Osoko Bilkurako kideek proposamenak egiteko aukera izan dezaten gai-zerrendan sartzeko.

**10.3.-** De forma previa a la convocatoria de las sesiones, se remitirá una relación de asuntos, y se establecerá una plazo de 2 días hábiles para que quienes componen el Pleno puedan aportar propuestas, para su inclusión en el orden del día.

**10.4.-** Bilkurak, izan ohikoak, izan ezohikoak, astebete lehenago deitu beharko dira, non eta urgentziazkoak ez diren. Deialdiarekin batera gai-zerrenda ere bidaliko da.

**10.4.-** Las sesiones, tanto las ordinarias como las extraordinarias, deberán ser convocadas con una semana de antelación, salvo que tengan carácter de urgencia. A los efectos se remitirá la convocatoria junto con el orden del día.

**10.5.-** Kontseiluaren idatzizko komunikazioa: barne harremanetarako idatziak euskaraz izango dira: bilera deiak, aktak, memoriak, azterketak, txostenak eta abar.

**10.5.-** Comunicación escrita del Consejo: los escritos de gestión interna serán en euskera: convocatorias de reuniones, actas, memorias, estudios, informes, etc.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**10.6.-** Kontseilua osatzeko izendatutako ordezkariek ez bestek bozkatuko dute Kontseiluaren saioetan.

**10.6.-** En las sesiones del Consejo votaran solamente las representantes nombradas para la composición del Consejo.

**10.7.-** Kontseilu Osoko Bilkuraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, baina une oro saiatuko dira hartu beharreko erabakiak adosten.

**10.7.-** Los acuerdos del Pleno se adoptarán por mayoría simple, aunque en todo momento se tenderá a consensuar las decisiones a tomar.

**10.8-** Kontseiluaren osaera urte bakoitzaren hasieran eguneratu ahal izango da.

**10.8.-** La composición del Consejo se podrá actualizar al inicio de cada año.

**11. artikulua.- Idazkaritza teknikoa**

**Artículo 11.- Secretaría técnica**

**11.1.-** Idazkaritza teknikoari dagokio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa, eta berdintasun teknikarietako batek edo administrari batek egingo du.

**11.1.-** Corresponde a la Secretaria técnica la gestión administrativa y técnica del Consejo, que será realizada por una de las técnicas o una administrativa.

**11.2.-** Hauexek dira Idazkaritza teknikoaren eginkizunak:

**11.2.-** Son funciones de esta Secretaría técnica las siguientes:

**11.3.-** Kontseiluaren bileren deialdiak egitea eta bidaltzea.

**11.3.-** Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones del Consejo.

**11.4.-** Kontseiluaren bilkuretako akta egitea.

**11.4.-** Levantar el acta de las sesiones del Consejo.

**11.5.-** Organoetako kideen eta ordezkarien zerrenda eguneratuta edukitzea, bai eta ordezkapenen eta kontseilua osatzen duten pertsonen alten eta bajen erregistroa ere.

**11.5.-** Llevar de forma actualizada el listado de las personas componentes y representantes de los distintos órganos, así como el registro de las sustituciones, de las altas y bajas de las personas que componen el Consejo.

**11.6.-** Behin-behineko aktak Kontseilua osatzen duten guztiei bidaliko zaizkie, eta hurrengo bilkuran onartuko dira, gai-zerrendako lehenengo puntuan.

**11.6.-** Las actas provisionales se remitirán a todas las personas que componen el Consejo, y se aprobarán en la siguiente sesión que se celebre, siendo el primer punto del orden del día a tratar.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**Bigarrena.-** Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluaren Erregelamenduari behin betiko onarpena ematea, eta aipatutako aldaketak txertatzea.

**Hirugarrena.-** Erregelamendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea bere osotasunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez partzialki onartu du Tolosako udaleko berdintasun kontseilua arautzen duen erregelamenduaren 5.4. artikuluari egindako alegazioa, eta aipatutako erregelamenduari behin betiko onarpena eman dio.

## 12. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEKO OINARRIEI.

### HERRITARRAK INFORMAZIO BATZORDEKO 2021EKO UZTAILAREN 21EKO IRIZPENA

### AURREKARIAK

2021eko uztailaren 8an, Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza eta Azoketako Saileko buruak proposatu du ordenantza hau onartzea: *Tolosako Hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programa arautzeko ordenantza.* Honela dio txostenak:

"Tolosako Udalak *Merkataritzako sektorea biziberritzeko dirulaguntzen programak arautzen dituen ordenantza* onartu zuen, 2017ko otsailaren 7an (GAO, 26. zenbakia). Horren bitartez, ordutik Tolosako enpresen transmisioan laguntzeko eta merkataritzako eremuak erakargarri eta atseginagoak egiteko bi programa garatu izan dira: Berriz Tolosa eta Gune Biziak. Aipatutako ordenantza, aldiz, zaharkitua geratu da baldintzei, eskatutako dokumentazioari, aplikazio eremuari, ordenantza ereduari edo lege eskakizunei dagokienez.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Bestalde, Errentengibelen bitartez, Tolosako hirigune historikoko lokal hutsetan kokatu diren enpresaritza ekimenentzat alokairurako eta birgaitzeko laguntzak kudeatu izan dira. 2020ko abenduaren 31ko datarekin, aldiz, Errentengibel SA sozietatearen disoluzioa eman da. Horren haritik, Udalbatzak 2020ko azaroaren 26an, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

- Sozietateko organoak onartutako dirulaguntzen kasuan, Tolosako Udalak haren ondorengotza hartuko du, eta bere gain hartuko ditu sozietateak onartutako betebeharrak.
- Sozietateak jaso dituen eta ebatzi ez dituen laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du haiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia. Horretarako, ezinbestekoa da dirulaguntza horiek arautzen dituen ordenantza edo ordenantzak izapidetzea eta onartzea. Proposatzen da Udalak izapidetu beharreko Dirulaguntzen Ordenantzan (edo Ordenantzetan) Xedapen Iragankor bat txertatzea, Erretengibelen aurkeztu diren eta ebatzi ez diren eskaerak Udalak izapidetu eta ebatzi ahal izan ditzan.

Horregatik, egindako bideari jarraipena eman nahian, eta sortutako egoera berrira egokitzeko eta beharrizan berriei erantzuteko, ezinbestekoa da ordenantza bat arautzea, aurreko ordenantza baliogabetuz eta berri bat eginez.

**<u>Ekimenaren bitartez erantzun nahi diren beharrizanak:</u>**

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena; eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez.

Alor horretan, Tolosako Udalak legeak zehazten dituen eginkizunak gauzatu nahi ditu, are gehiago gaur egungo errealitatea kontuan izanda. Izan ere, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta daude, hainbat erronkari erantzun behar baitiote: kontsumo ohitura berrietara egokitzea; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; omnikanalitatea garatzea; errelebo faltari eta ekintzailetza tasa baxuari erantzutea; kale espazioak egokitzea; lokal hutsen kudeaketa, eta abar.

Eraldaketa horiek guztiek hiri-ekonomiako sektoreen biziraupena baldintzatzen dute, eta faktore horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da horien eragin negatiboa gutxitzeko, eta guztiaren gainetik udalerriko bizi-kalitatea eta kohesio soziala bermatzen dituen merkataritza eredua (hiri ekonomia) mantentzeko. Horregatik, Administrazioaren ardura da, besteak beste, ekintzaile eta negozio berriei babesa eskaintzea, bertako garapen ekonomikoa lehenetsiz.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Beraz, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritzeko eta jasangarri egiteko ordenantza bat egiteko beharra dago.

**Ordenantzaren helburua:**

*“Hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programa”* arautzen duen ordenantzaren helburua izango da hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa sustatzea, zehazki, jarduera hauek sustatzeko dirulaguntza programak arautuz:

- Negozioen arteko eskualdaketa.
- Tolosan enpresaritza ekimena abiaraztea.
- Kale-espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzea.

Horregatik, proposatu du aipatutako Ordenantza onartzea. Txostenak dio aurretiazko informazioan ez dela proposamenik edo iradokizunik izan. Halaber, txosten juridikoa eskatu du.

**AZTERKETA JURIDIKOA**

**1.- Oinarri Juridikoa eta Udalaren eskumena**

*Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena; eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez.*

**2.- Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluak erregelamenduak eta ordenantzak egiteko eta bere burua antolatzeko ahalak esleitzen dizkie udalerriei, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta beren eskumenen esparruan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluan, legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta ordenantzak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

**3.- Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak**

**-Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren** 24. eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

xedatzen dute, eta, horien barruan, dirulaguntzak emateko ahalmena onartzen zaie. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua

Herri Administrazioen diru laguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikuluak, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikuluaren 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

**3.** Dirulaguntzak emateko oinarrizko arauak zehaztu beharko ditu, gutxienez, honako alderdi hauek:

**a)** Dirulaguntzaren xedearen definizioa.

**b)** Dirulaguntza lortzeko onuradunek eta, hala badagokio, lege honetako 11. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatzen diren erakundeetako kideek bete beharreko baldintzak, eta eskabideak aurkezteko modua eta epea.

**c)** Lege honetako 12. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsona juridikoek bete beharreko kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak.

**d)** Dirulaguntza emateko prozedura.

e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena.

**f)** Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak.

**g)** Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea.

**h)** Hala badagokio, dirulaguntza behar bezala justifikatzen dela bermatzeko kontabilitate-liburu eta erregistro espezifikoak zehaztea.

**i)** Onuradunak edo erakunde laguntzaileak, hala badagokio, dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua.

**j)** Organo emailearen alde eratu beharrekotzat jotzen diren berme-neurriak, eratzeko bitartekoak eta ezerezteko prozedura.

**k)** Aurretiazko ordainketak eta konturako ordainketak egiteko aukera, bai eta, hala

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

badagokio, onuradunek jarri beharreko berme-araubidea ere.

**l)** Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea eragin dezaketen irkunstantziak.

**m)** Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarria edo bateraezina izatea, horiek edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenean, izan nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak

**n)** Dirulaguntzak ematean ezarritako baldintzen balizko ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak azkenean jasoko duen zenbatekoa zehazteko edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun-printzipioa bete beharko dute.

**-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren arabera:**

"2. artikulua. Dirulaguntzaren kontzeptua.

1. Lege honen ondorioetarako, dirulaguntzatzat hartuko da lege honen 3. artikuluan jasotako subjektuetako edozeinek pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro, baldintza hauek betetzen baditu:

a) Dirulaguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.

b) Dirulaguntza emateko, helburu jakin bat bete behar da, proiektu bat gauzatu behar da, jarduera bat egin behar da, portaera berezi bat hartu behar da ─ordurako gauzatuta egon daitezke edo artean garatzeko─, edo egoera bat gertatu behar du, eta ezarritako betebehar material eta formalak bete behar ditu onuradunak.

c) Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburuak izan behar du onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea".

-1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikuluaren arabera:

"Dirulaguntzatzat hartuko da korporazioek toki-erakundeen kontura ematen duten zuzeneko edo zeharkako edozein laguntza, ekonomikoki baloratzeko modukoa, eta, horien artean, bekak, primak, sariak eta laguntza pertsonalerako gainerako gastuak".

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**Aurreko izaeraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren beharra**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzak erregulatzen dituenak, honela dio 8.1. artikuluan:

  “8 artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Herri-administrazioetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko du zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epe behar den helburu eta ondorio horiek lortzeko, zer kostu aurreikus daitezkeen eta zer finantzaketa-iturri dituzten, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.
2. Lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean, argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera bideratu behar dira helburuok, eta ondorioek ahalik eta distortsio txikiena eragin behar dute.
3. Lege honetan aipatzen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:
   a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
   b) Dirulaguntza eman duen administrazioak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.
   c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna”.

Zentzu honetan, Udalbatzak, 2020-2022 urteetarako, Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Dirulaguntza lerro hau bertan aurreikusita dago.

- **Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua:**

Honela dio:

"Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da, ....”

**4.-Oinarrien izapidetzea:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, ordenantza honen izapidetzeak pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespena, osoko bilkurari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan arautuakoaren arabera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Informazio publikoa eta interesdunen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezen..
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatzaren osoko bilkurari dagokiona.
- Informazio publikoko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango dute.

**5.- Organo eskuduna**

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantza honen onespena udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da.

**6.- Fiskalizazio txostena**

Jarduneko kontuhartzaileak 2021eko uztailaren 19an egindako fiskalizazio txostenaren arabera, ordenantza egokitu beharra dago prozeduraren instrukzio, ordenazio eta ebazpenerako organoei buruzko zuzenketak sartuz.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran, fiskalizazio txostenarekin bat eginez, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko botoak:** Nerea Letamendia, Izarne Iglesias, Joseba Ormazabal eta Jose Mari Villanueva.
- **Aurkako botoak:** 0
- **Abstentzioa:** Aitzol Gartzia, Garbiñe Marzol eta Kristina Pelaez.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA:**

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea *Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programa* arautzeko Ordenantzari, fiskalizazio txostenarekin bat egiten duen honako testu honen arabera:

**AURKIBIDEA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea

2. artikulua. Onuradunak

3. artikulua. Onuradunak bete beharreko baldintzak

4. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

6. artikulua. Akatsak zuzentzea

7. artikulua. Balorazio irizpideak

8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

9. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea

10. artikulua. Onuradunen betebeharrak eta eskubideak

11. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

12. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna

13. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

14. artikulua. Ez-betetzeak eta administrazio-zigorrak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura

15. artikulua. Datu pertsonalen babesa

16. artikulua. Ahalmena

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

1. artikulua. Erretengibel SA sozietatetik eratorritako eskaeren ebazpena

**ERANSKINAK**

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – BERRIZ TOLOSA
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiarazteko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – EKIN
- III. eranskina: Kale espazioak eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko programa - GUNE BIZIAK
- IV. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programan onartzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde eta epigrafeak

**Tolosako hiri-ekonomia**

**indarberritzeko dirulaguntzak emateko ordenantza**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

garapena, eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez.

Alor horretan, Tolosako Udalak legeak zehazten dituen eginkizunak gauzatu nahi ditu, are gehiago gaur egungo errealitatea kontuan izanda. Izan ere, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta daude hainbat erronkari erantzun behar baitiote: kontsumo ohitura berrietara egokitzea; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; omnikanalitatea garatzea; errelebo faltari eta ekintzailetasun tasa baxuari erantzutea; kale espazioak egokitzea; lokal hutsen kudeaketa, e.a.

Eraldaketa horiek guztiek hiri-ekonomiako sektoreen biziraupena baldintzatzen dute, eta faktore horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da horien eragin negatiboa gutxitzeko, eta guztiaren gainetik udalerriko bizi-kalitatea eta kohesio soziala bermatzen dituen merkataritza eredua (hiri-ekonomia) mantentzeko. Horregatik, Administrazioaren ardura da, besteak beste, ekintzaile eta negozio berriei babesa eskaintzea, bertako garapen ekonomikoa lehenetsiz.

Bestalde, hiri-ekonomian planifikazio falta da enpresen itxiera eragiten duen faktore nagusietako bat. Enpresen eskualdaketarako plan batek berekin eduki behar ditu enpresa aurrera segitzeko prozesuak eta, aldi berean, kudeatzaileen aldaketak eragindako nahasmendua zuzentzeko tresnak eta egutegia. Ildo horretan, Administrazioak erraztu eta gidatu behar ditu ibilbide horiek, sektorearen biziraupena berma dadin.

Itxiera horien ondorioz, gainera, geroz eta lokal huts gehiago aurki daitezke herriko kaleetan, bai Zabalgunean (% 56,2), bai Alde Zaharrean (% 43,8) (Siadeco, 2019). Alde Zaharreko lokalen kasuan, gainera, zailtasun gehigarriak izaten dituzte bertan jarduera berri bat martxan jartzerako orduan, besteak beste, lokalen ezaugarriengatik eta Alde Zaharrak berezkoak dituen arauengatik.

Gainera, lokal hutsek segurtasun eta zikinkeria arazo ugari sortzen dituzte merkataritza guneetan. Horri dagokionez, kaleetan jarraikortasuna lortzeak, hau da, lokal hutsik gabeko eremua izateak eta merkataritza eremu erakargarri eta atsegina lortzeak sektorearentzako eta bizilagunen bizitzarako onurak dakartzate.

Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritzeko eta jasangarri egiteko, hortaz, ezinbestekotzat jotzen da Ordenantza honetan arautako dirulaguntza lerroak xedatzea, zeinen bitartez bultzatzen diren ekintzaile eta negozio berrien abiaraztea, negozioen arteko eskualdaketa eta merkataritza-establezimenduen erakargarritasuna.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.

Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.

Dirulaguntzak jarraian jaso eta eranskin gisa identifikatzen diren berariazko oinarrietan zehaztutakoaren arabera banatuko dira:

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa - BERRIZ TOLOSA programa.
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programa.
- III. eranskina: Kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzea – GUNE BIZIAK programa.

### 2. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Kasuan kasu, hiru onuradun profil daude:

1. Ekintzaileak.
2. Merkataritza lokal hutsen jabeak.
3. Tolosan beste merkataritza saltoki baten jabeak.

### 3. artikulua. Onuradunak bete beharreko baldintzak

Onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak honako hauek dira:

1. Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharrak.
2. Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.

**4. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea**

Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea honako hauek dira:

**- Aurkezteko modua:**

Interesdunak eskabide bakarra egin beharko du, dirulaguntza lerro ezberdinetarako eskaera egin arren.

**- Aurkezteko lekua:**

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

a) Aurrez aurre, UDATEn.
b) Erregistro elektronikoaren bidez.
c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
d) Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.

**- Aurkezteko epea:**

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdian finkatuko da.

**5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Interesdunak jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa eranskin bakoitzean zehaztuko da.

39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera, administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dauden edo edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu edo

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.

Ildo horretan, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez:

- EJZren epigrafean alta ematea.
- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Tolosako Udalarekiko zorrak egunean dituela.
- Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

Arazo teknikoak medio, kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.

**6. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**7. artikulua. Balorazio irizpideak**

Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek dirulaguntza lerro bakoitzean ezarritakoak izango dira.

**8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak**

**- Instrukzioa:**

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azoketako Sailari dagokio. Departamentu horrek, osatutako espedienteak ebaluatu eta aztertu ondoren, eta dagokion ekitaldirako

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

udal aurrekontuaren arabera erabilgarri dagoen kreditua agortu arte, nahitaezko txostenak egingo ditu, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

**- Balorazioa:**

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da. Edozein kasutan, Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azoketako Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

Sail arduradunari dagokio eskabideak baloratzea dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazio eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere irizpena onar dezan. Ondoren irizpen hori organo eskudunaren eskuetan utziko da, honek ebatzi dezan.

**- Ebazpena:**

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

**9. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea**

Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer pertsonari ematen zaion eta zer zenbateko duen.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluak xedatzen duen moduan.

Emakidari buruzko behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

**10. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak**

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Jarduera garatzeko diruz lagundua izan den lokala hasiera batean jakinarazitako jarduerarako soilik erabili behar da.
- Onuradunak jarduera etetea erabakitzen badu, horren berri eman beharko dio Udalari.
- Gastu bererako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jasoz gero, Udalari jakinarazi beharko dio.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Diruz lagundutako jardueraren baitan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da, emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak saihestu beharko dira, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatuko da.
- Oro har, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein.
- Horretaz gain, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak bete beharko dituzte.

Honako hauek dira onuradunaren eskubideak:

- Euskara Azpisailak sustatutako Merkataritza programan parte hartzeko lehentasuna.

**11. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea**

Udalak egingo du emandako dirulaguntza guztien publizitatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.

**12. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna**

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu behar.

Onuradunak arau honetan erregulatutako xede bererako dirulaguntza lortu edota eskatzen badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Udalari.

Gainfinantzaketa gerora gertatzen bada, eta dirua itzultzeko obligazioren bat baino gehiago izanez gero, onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Tolosako Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

**13. artikulua. Aplikatu beharreko araudia**

Testu honetan araututako dirulaguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa bete behar dute:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Otsailaren 18ko Legea.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadi toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2017ko uztailaren 7koa.
- 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

**14. artikulua. Ez-betetzeak eta administrazio-zigorrak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura**

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebehar ez betetzeak dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa baliogabetu edo itzuli beharko da.

Itzulketa-prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza errebokatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke, arrazoiak emanez. Prozedura izapidetzean, interesdunak hura ezagutzeko duen eskubidea bermatu behar da beti.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:

- Arau-hauste arinak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan daude jasota.
- Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan daude jasota.
- Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan daude jasota.

Arau-hauste horiei azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 59. eta hurrengo artikuluetan adierazten diren zigorrak dagozkie.

**15. artikulua. Datu pertsonalen babesa**

Datu pertsonalen babesari buruz, xedapen hauek aplikatuko dira besteak beste:

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Udalak izango du datu pertsonalen tratamenduaren ardura. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko eskubideak.

**16. artikulua. Ahalmena**

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako aldaketak sartzeko, baldin-eta aldaketa horiek badira nahitaez aplikatu beharreko arau-aldaketak eta berekin dakartzatenak baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo portzentajeak automatikoki ordenatzea. Aldaketa horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, berretsi ditzan.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

**1. artikulua. Erretengibel SA sozietatetik eratorritako eskaeren ebazpena**

Erretengibel, S.A. sozietateari 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztutako eta hark ebatzi gabeko laguntzen kasuan, Tolosako Udalak bere gain hartuko du horiek izapidetzeko eta ebazteko betebeharra, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartuko du. Eskabide horiek izapidetzeko eta ebazteko prozedura Ordenantza honetan jasotzen den 2. eranskineko berariazko oinarrien baitan egingo da.

**I. ERANSKINA: NEGOZIOEN ARTEKO ESKUALDAKETA SUSTATZEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – BERRIZ TOLOSA**

**1. artikulua. Helburua**

BERRIZ TOLOSA programaren helburua da enpresen eskualdaketa egin eta Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsonei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

**2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

Honen bitartez, negozioaren ardura hartu duten pertsonei diruz lagunduko zaizkie negozioa garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

**3. artikulua. Onuradunak**

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**4. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko bete behar dituzten baldintzak**

Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

1. Aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-jarraipeneko BERRIZ ENPRESA programan parte hartu izana, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, eta programan ezarritako baldintzak betetzea.
2. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
3. Eskualdatutako negozioaren jarduera hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, ostalaritza edo ostatua.
4. Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.
5. Dirulaguntza eskatzerako orduan, Jarduera Ekonomiko gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea.
6. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.

Ez da laguntzarik emango, baldin eta pertsona eskatzaileak:

- Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu.
- Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide bada.

**5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

Eskatzaile bakoitzari eman dakiokeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu- gastuaren % 75.
- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 25.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Dirulaguntza ordainduko da alokairu-kontratuan edo erosketa-kontratuan agertzen den egunetik aurrera.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarrenean, 3.600,00 € eta hirugarrenean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio. Hori guztia, betiere, lokalaren alokairu prezioa 12 €/m²-koa edo hortik beherakoa bada.

Laguntzaren eskatzaileak bi establezimendu dituen negozio bat beregain hartzen badu, laguntza proportzioan bikoiztuko da. Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatuko da, aurretik ezarritako baldintzen arabera.

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izatea (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hura hartuko da kontuan.
- Nolanahi ere, kalkulatzeko gehieneko prezioa 12 €/ m² izango da. Horretarako, alokairu kontratuan zehaztutako metro kopurua hartuko da aintzakotzat.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria dela-eta, kontuan hartuko dira jarduerari lotutako ondasunen erosketa finantzatzen duten maileguen (hipoteka edo pertsonalak) amortizazio-gastuak eta interesak.
- Lokala erosi den kasuetan, erosketarako "mailegu zubi bat" kontratatu bada, edo maileguak bestelako gabezia edo karentziak baditu, lehen 3 urteetan erosketaren maileguari zuzenean egotzi ahal zaizkion interes gastuak hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

**6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.
5. Ganberak bermatutako eskualdatze-ziurtagiria.
6. "Jardueraren titulartasun aldaketaren jakinarazpena" izeneko udal inprimakia (aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta).
7. Osasun Saileko Elikagaien Establezimenduen Erregistroan titularitate aldaketa egin delako egiaztagiria (hala badagokio).

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako erosketa-kontratua.
2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.
3. Maileguaren kasuan, hipoteka-maileguaren eskritura publikoa edo, hala badagokio, mailegua formalizatu izanaren egiaztagiria.

**7. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea**

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

**8. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko prozedura eta epeak**

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko epea hiru hilean behin izango da dirulaguntza ematen denetik 3 urteko epea bete arte. Hiru hilean behin (urtarrila, apirila, uztaila eta urria), honako hau aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzeari aurka agertu bada eskatzailea.

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

1. Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

**9. artikulua. Ordainketa prozedura**

Edozein kasutan, dirulaguntza hiru hilean behin ordainduko da.

**10. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak**

Dirulaguntza emateko prozedura lehiarik gabeko norgehiagoka izango da, organo eskudunak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdiaren bidez.

Hautaketa-irizpidea eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, betiere pertsona edo erakunde eskatzaileak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

**<u>II. ERANSKINA:</u> TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – EKIN**

**1. artikulua. Helburua**

EKIN programaren helburua da Tolosako hiri-ekonomiako sektoreetako batean enpresaritza ekimen bat abiarazteagatik pertsonei dirulaguntzak ematea.

**2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

Honen bitartez, hiri-ekonomia sektoreko ekimen berriak martxan jartzeko jarduketa hauek lagunduko dira diruz:

a) Tolosako Alde Zaharrean enpresa ekimena garatu ahal izateko beharrezkoa den lokala birgaitzeko egindako gastuak.

   Kasu honetan, orokorrean onartuko dira merkataritza establezimenduaren barrualdea edota kanpoaldea moldatzeko, berritzeko edo handitzeko instalazioak eta obrak, baita oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egindako eraberritzeak ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburua badute.

b) Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Enpresa ekimena Tolosako Alde Zaharrean kokatuz gero, bateragarriak izango dira birgaitzeko eta alokairu edo erosketa gastuetarako emandako dirulaguntzak.

**3. artikulua. Onuradunak**

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

**4. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko bete behar dituzten baldintzak**

Lokala birgaitzeko edota lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintza zehatzak honako hauek dira:

1. Enpresa-ekimen berria hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismoa.
2. Enpresa ekimenaren jarduera nagusia 4. eranskinean jasotzen den Jarduera Ekonomiko gaineko Zergako epigraferen batean alta emanda egotea (JEZ).
3. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
4. Jarduerak ezingo dira kokatu:
    - Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Berezian aurreikusitako ekintza isolatuaren objektu izateagatik ordenazioz kanpokotzat deklaratutako eraikinetan.
    - Aurri-egoeran dauden eraikinetan.
    - Kontserbazio-egoerarengatik eta bizigarritasun baldintzengatik eraikina finkatzea egokia ez dela ebazten den eraikinetan.
5. Negozio plan bideragarria eta amaitua Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailetza departamentuak balidatua.

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

- Jarduera Tolosako Alde Zaharrean kokatutako lokal itxi batetan egotea.
- Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Bereziak ezarritako araudia betetzea.

- Dirulaguntza alokairu- edo erosketa- gastuetarako bada:

1. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Ez da alokairu edo lokala erosteagatik laguntzarik emango, baldin eta pertsona eskatzaileak:

- Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu.
- Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide bada.

**5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

Eskatzaile bakoitzari eman dakiokeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

a) Enpresa ekimena garatuko den lokala birgaitzeko: aurrekontuaren % 20, dirulaguntzaren muga 6.000,00 euro izanik.

b) Lokalaren alokairu edo erosketa gastuentzako: eskatzaile bakoitzari eman dakiokeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 75.
- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu- edo mailegu-gastuaren % 25.

Dirulaguntza ordainduko da alokairu-kontratuan edo erosketa-kontratuan agertzen den egunetik aurrera.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarrenean, 3.600,00 € eta hirugarrenean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio. Hori guztia, betiere, lokalaren alokairu prezioa 12 €/m²-koa edo hortik beherakoa bada.

- Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hura hartuko da kontuan.
- Nolanahi ere, kalkulatzeko gehieneko prezioa 12 €/ m² izango da. Horretarako, alokairu kontratuan zehaztutako metro kopurua hartuko da aintzakotzat.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Dirulaguntza mailegu gastuetarako bada:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria dela-eta, kontuan hartuko dira jarduerari lotutako ondasunen erosketa finantzatzen duten maileguen (hipoteka edo pertsonalak) amortizazio-gastuak eta interesak.
- Lokala erosi den kasuetan, erosketarako “mailegu zubi bat” kontratatu bada, edo maileguak bestelako gabeziak edo karentziak baditu, lehen 3 urteetan erosketaren maileguari zuzenean inputatu ahal zaizkion interes gastuak hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

**6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.
4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.
5. Negozio/bideragarritasun plana, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailetza departamentuak balidatua, aurrekontu edo jarduera garatzean sortzen diren gastuen zerrenda jasoz.

   Halaber, plan horretan txertatu beharko dira 11. artikuluan dirulaguntza emateko irizpideen azalpena. Eta honako dokumentu hauek erantsiko dira (hala badagokio):

   1. Pertsona ekintzaileak sektorean lan esperientzia duela frogatzeko: lan bizitza eta/edo lan ziurtagiriak, funtzioak azalduz, arduradunaren sinadurarekin eta zigilatuta.
   2. Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta duela bermatzeko: publizitatea eta marketina, eta ingurune digitala gutxienez euskaraz landuko direla egiaztatzeko, konpromiso ziurtagiria.
   3. Zerbitzua eskainiko duten langileen euskarazko B2 titulua.
6. “Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa” izeneko udal inprimakia, jarduera proiektuarekin batera eta inprimakian azaltzen diren beste agiriekin batera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. “Jarduera ezartzeko obren baimen eskaera” izeneko udal inprimakia.
2. Obra eta jarduera proiektua.
3. Aurrekontua.

- Dirulaguntza alokairu edo erosketa gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua edo lokalaren jabetza eskuratuz gero, erosketa-kontratua.
2. Lokalaren jabetza eskuratuz gero, banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.
3. Maileguaren kasuan, hipoteka-maileguaren eskritura publikoa edo, hala badagokio, mailegua formalizatu izanaren egiaztagiria.

**7. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea**

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

**8. artikulua. Ordainketa prozedura**

- Dirulaguntza birgaitze gastuetarako eskatu bada: ordainketa bi zatitan egingo da: ebazpenarekin batera, dirulaguntzaren % 70 ordainduko da. Gainontzeko % 30a, berriz, onuradunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta eman eta handik 12 hilabetera egingo da, zuriketarako agiriak aurkeztu ostean.
- Dirulaguntza alokairu edo mailegu gastuetarako eskatu bada: dirulaguntza ebazten den unetik, ordainketa hiru hilean behin egingo da 3 urteko epea bete arte, zuriketarako beharrezko agiriak aurkeztu ostean.

**9. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko agiriak eta epea**

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. Proiektu teknikoa egitea beharrezkoa litzatekeen lanen kasuan dagokion obra bukaerako ziurtagiria, elkargoaren oniritziarekin (bisatuarekin).
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

b) Dirulaguntza alokairu- edo mailegu- gastuetarako bada: hiru hilean behin (urtarrila, apirila, uztaila eta urria), honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Alokairuaren kasuan:
  - Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
  - Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

- Erosketaren kasuan:
  1. Maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria.
  2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

**10. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak**

Eskabidea egiteko interesdunak eranskin honen 7. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.

Kasu guztietan, Tolosako Udalak eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako eskaera egoki ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezko jotzen duen dokumentu edota informazio gehigarri guztia. Era berean, proiektua hobeto ulertzeko elkarrizketa edo aurkezpen bat egiteko ere eskatu ahal izango du.

Eskaeren baloraziorako, Kudeaketa Batzorde bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek, Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azokak Sailekoa bera, eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailetasun arloko teknikariak. Aldi berean, batzordeak berak erabakitzen duen kasuetan, adituek parte hartu ahal izango dute batzorde honetan.

Era berean, Batzorde hau osatzen denean, saiatu behar da bermatzen gaitasun, trebetasun eta prestakuntza egokiko gizon eta emakumeen arteko oreka; hori bermatzen dela ulertuko da, hain zuzen ere, gutxienez, sexu biek % 40ko ordezkaritza izatea dutenean.

<u>- Dirulaguntza emateko irizpideak:</u>

Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuek 50 puntu baino gehiago lortu beharko dituzte:

- Tolosaldea Garatzenek ontzat emandako bideragarritasun azterketa: 30 puntu
- Izaera berritzailea. Bi aukera aurreikusten dira:
  - Herrian horrelako produktu edo zerbitzu eskaintzarik ez badago: 10 puntu.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

  - Horrelakorik badago, baina zerbitzuak gehigarriak eskaintzen baditu (etxez etxeko entrega, eskaerak hainbat kanalen bidez egitea, ordaintzeko erraztasunak, arreta pertsonalizatua…): 5 puntu.
- Izaera estrategikoa: 10 puntu.
  - Udalerriko sektore edo ingurune zehatz batean izaera estrategikoa dutenak honako arlo hauekin lotutakoak izango dira: zahartze aktiboa eta zilarrezko ekonomia, lehen sektorea, turismoa, ekonomia zirkularra, tokiko gastronomia eta kultura.
  - Beste sektore edo jarduera batzuk baloratu ahal izango dira, baldin eta indarreko Hiri-ekonomiako Plan Estrategikoarekin zerikusia badute.
- Eskainitako produktuen eta zerbitzuen ingurumen ikuspegia: 10 puntu:
  - Ekonomia zirkularreko jarduera/produktu jasangarrien salmenta: 4 puntu.
  - Energiaren kudeaketa eraginkorra bermatzen duten neurriak: 3 puntu.
  - Hondakinak gutxitu edo era eraginkorrean kudeatzeko sistemak: 3 puntu.
- Ekintzailearen lan esperientzia: 10 puntu.
  - Ekintzaileak sektorean lanean daraman urte bakoitzagatik puntu bat.
- Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta izatea: 10 puntu.
  - Erakundearen irudia (errotulua eta izena euskara hutsez izatea): puntu 2.
  - Publizitatea eta marketina (gutxienez euskaraz egitea): 2 puntu.
    - Horretarako, konpromiso ziurtagiria aurkeztu beharko da.
  - Ingurune digitala (gutxienez euskaraz egitea): 2 puntu.
    - Horretarako, konpromiso ziurtagiria aurkeztu beharko da.
  - Bezeroarekiko harremanak ahoz eta idatziz euskaraz bermatzea (zerbitzua eskainiko duten pertsonen hizkuntza gaitasuna): 4 puntu.
    - Horretarako, euskarazko titulua (B2 maila) aurkeztu beharko da edo, hura izan ezean, Euskara departamentuak egindako galdeketa gainditu beharko da.
- Alde Zaharrean kokatzea: 15 puntu. (Alde Zahar gisa ulertuko da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehaztutakoa).
- Zabalgunean kokatzea: 5 puntu. (Alde Zaharra ez dena).

**11. artikulua. Onuradunaren betebeharrak**

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

- Laguntzaren xede den ekintzailetza proiektua gutxienez urtebetez altan mantendu beharko da.

**<u>III. ERANSKINA</u>: KALE ESPAZIO ETA LOKAL HUTSAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO PROGRAMA – GUNE BIZIAK**

**1. artikulua. Helburua**

GUNE BIZIAK programaren helburua da kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

**2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**

Lerro honen baitan jarduera hauek izango dira diruz lagungarriak:

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko. merkataritza jarduerarik ez duten lokalen jabeek lokalaren erakusleihoa utziko diote Tolosako Udalari, Udalak udalerriko merkatariei utz diezaien. Azken horiek beren produktuen lagin bat erakusteko modua izango dute.

b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: merkataritzako jarduerarik ez duten lokal eta espazioetan (atzeko aldeak, hormak…) merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko dira, grafitiak, biniloak, margolanak edo antzekoak.

**3. artikulua. Onuradunak**

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradunen bi profil ezartzen dira:

1. Erakusleihoa erabiltzeko uzten duten merkataritza-lokal hutsen jabeak.
2. Lokala utzita jasotzen duten Tolosako merkatariak.

**4. artikulua. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.**

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Tolosako Udalak martxan dituen birgaitze proiektuei atxikitako kaleetan lokal huts baten jabe izatea, edo Tolosan merkataritza jarduera baten jabe izatea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

2. Erakusleihoa edo lokalaren kanpoaldea uzteko epea gutxienez 6 hilabetekoa izango da akordioa sinatzen den unetik.

Nolanahi ere, jabeak eskubidea izango du lagapen-kontratua 6 hilabete horiek baino lehenago bertan behera uzteko, lokala saldu behar badu edo merkataritza-jarduera bat ezartzeko alokairuan jarri behar badu.

**5. Artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko.

- Erakusleihoa Tolosako Udalari uzten dioten jabeek 200,00 €-ko dirulaguntza jasoko dute.
- Tolosaren Udalaren bitartez lokala utzita jasotzen duten merkatariek erakusleihoa egokitzeko kostuaren % 100eko dirulaguntza jasoko dute:
  - 2 metro arteko erakusleihoen kasuan (kristalaren zabalera hartuko da erreferentziatzat): 600,00 € gehienez ere.
  - 2 metrotik aurrera: 800,00 € gehienez ere.

Azken kasu horretan, diruz lagunduko dira kontzeptu hauek: erakusleihoa egokitzeko obrak, instalazio elektrikoa egokitzeko lanak, su-itzalgailuen kostua, aseguru poliza…

Fatxadako errotulu nagusia aldatzen bada, gutxienez euskaraz egotea bermatu behar da. Era berean, soilik euskaraz egonez gero, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren dirulaguntza jaso ahal izango dute.

b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: Tolosako Udalak merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko ditu (grafitiak, biniloak, margolanak…) eta horiek gauzatzeko kostu osoa bere gain hartuko du.

**6. artikulua. Ordaintzeko modua**

Erakusleihoa Tolosako Udalari utzi dion jabearen kasuan, ordainketa bakarra egingo da, behin baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta bi aldeen arteko akordioa sinatu ostean.

Erakusleiho bat hartu nahi duen merkatariaren kasuan ordainketa bakarra egingo da, lokala egokitzeko lanak burutu, zuriketa aurkeztu eta udal teknikariak aldeko txostena egin ostean.

**7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

1. Eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkaritza agiria.
4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.

- Lokalaren erabilera Udalari lagatzeko interesa duten jabeek:

1. Lokalaren identifikazioa eta egoera jasotzen duen memoria.

- Erakusleihoa erabiltzeko interesa duten merkatariek:

1. Lokalaren identifikazioa eta erakusleihoari eman nahi zaion erabilera jasotzen duen proiektua.
2. Obra jakinarazpena edo obra txikia egiteko eskaera (egin beharreko obren arabera) eta aurrekontua.
3. Kontratatutako aseguru-polizaren ziurtagiria eta ordainagiria, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihoaren instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.

**8. artikulua. Lokalaren lagapenerako prozedura**

a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: behin Tolosako Udalak bi eskaerak jaso dituenean, bi akordio sinatuko ditu:

    1. Bata, lokal hutsaren jabearekin.
    2. Bestea, lokal hutsaren erakusleihoa erabiliko duen merkatariarekin.

    Hau da, lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatu ondoren, lokal hori Tolosako merkatari bati utziko dio, beste akordio berri bat sinatuaz, azken horrek lokal horren erakusleihoa erabili dezan.

b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: kasu honetan, Udalak lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatuko du.

**9. artikulua. Emandako dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa**

Behin pertsona eskatzaileak lokala egokitzeko lanak burutu dituenean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

1. Memoria dagokien argazkiekin.
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.

**10. artikulua. Aldeen betebeharrak**

**-** Jabearen betebeharrak:

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jasotzen duen merkatariari behar adina aldiz utziko dio sartzen erakusleihoaren mantentze-lanak egiteko, berritzeko edo bertan dauden salgaiak kentzeko.
- Lokala alokatzeko edo saltzeko iragarkien kartelak Udalak jarriko ditu jabeen eskura, eta haiek ezingo dute eredu horiez aparteko kartelik eta iragarkirik jarri.

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jaso duen merkatariaren betebeharrak:

- Erakusleihoa egokitu beharko du.
- Beharrezko su-itzalgailuak jarri beharko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideen arabera.
- Erakusleihoaren kontsumo elektrikoaren gastua ordaindu beharko du. Erakusleihoaren kontsumoa neurtzeko kontagailurik ez badago, aldeek adostasunez erabakitakoa bete beharko du.
- Ezingo du inolako jarduera ekonomikorik egin erakusleihoa dagoen lokalean; erakusleihoa bera atondu eta egokitu besterik ez du egingo.
- Erakusleihoan erakutsitako laginaren kalitatea zaindu beharko du.
- Aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihoaren instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.
- Kontratua amaitzean, baldintza berberetan utzi beharko du lokala. Horretarako, lokala entregatu aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko, laguntza ematen den datatik hasita.
- Erakusleihoa gutxienez 6 hilabetez mantendu beharko da, eta horrela ez den kasuetan Udalari jakinarazi beharko zaio.
- Tolosako Udalaren GUNE BIZIAK egitasmoko irudia sartu beharko du lagatako erakusleihoan.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

<u>- Udalaren betebeharrak:</u>

- Bi aldeen arteko akordioa amaitutzat emandakoan, Udalak egoera onean utziko dio berriz lokal hutsa haren jabeari, eta kalterik sortu bada, Udalak konpondu beharko du. Horretarako, lokala jaso aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko.

<u>- Jarduketa artistikoa egiten duen enpresaren betebeharrak:</u>

- Idatzizko informazioa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo ele bitan egin behar da, eta, azken kasu horretan, euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala.
- Kontratatutako erakundeak Tolosako Udalaren GUNE BIZIAK egitasmoko irudia sartu beharko du gauzatuko den jarduketa artistikoan, zehazki, egindako grafiti, binilo edota margolan bakoitzean.

**<u>IV. ERANSKINA</u>: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEA – EKIN PROGRAMAN ONARTZEN DIREN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ) TALDE ETA EPIGRAFEAK.**

**LEHEN SEKZIOA. ENPRESA JARDUERAK:**

**<u>MERKATARITZA:</u>**

491 Bitxigintza eta imitaziozko bitxigintza.

641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642 Honakoen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.

643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644 Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646 Tabako-laboreen eta erretzaileentzako gauzen txikizkako merkataritza.

647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailedun establezimenduetan.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko eremua duenean.

647.3 Supermerkatuetan egiten den mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan; saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro bitarte dituenean deritze supermerkatu.

651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienerako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.

653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezko piezen txikizkako merkataritza.

654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberen txikizkako merkataritza.

656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657 Musika-tresnen eta haien osagarrien txikizkako merkataritza.

659 Bestelako txikizkako merkataritza.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**<u>OSTALARITZA ETA TURISMOA</u>**

671 Jatetxeetako zerbitzuak.

672 Kafetegietako zerbitzuak.

673 Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta tabernetan.

676 Txokolategietako, izozki-dendako eta hortxategietako zerbitzuak.

68 Ostatu zerbitzuak.

755 Bidaia agentziak.

**<u>HIRIKO MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO BESTE ZERBITZU BATZUK</u>**

691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.

691.9 Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.

83 Finantza- eta aseguru-laguntzaileak. Higiezinen jarduerak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

84 Enpresei emandako zerbitzuak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

943 Estomatologia eta odontologiako kontsultak eta klinikak.

944 Naturopatia, akupuntura eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

945 Albaitarien kontsultak eta klinikak.

971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

972 Ile-apaindegiak eta gorputz apaindegiak.

973.1 Fotografia-zerbitzuak.

973.3 Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

975 Enmarkazio zerbitzuak.

979.9 Beste zerbitzu pertsonal batzuk.

**BIGARREN SEKZIOA. JARDUERA PROFESIONALAK (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira)**

7. atala: finantza, lege, aseguru eta alokairuetako jarduerekin lotutako profesionalak.

825 Lurreko, uretako, aeronautikako eta abarretako ibilgailuak gidatzeko irakasleak.

83 Osasun-arloko profesionalak.

826 Irakaskuntza ezberdinen irakasleak, esate batera, hezkuntza fisikoa eta kirolak, hizkuntza, mekanografia, azterketa eta oposizioen prestakuntza eta antzekoak.

84 Enpresentzako zerbitzuak.

88 Hainbat profesional.

836 Osasun teknikari laguntzaileak eta fisioterapeutak.

839 Masajistak, bromatologoak, dietistak eta erizaintzako laguntzaileak.

841 Naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

861 Margolariak, eskultoreak, zeramikariak, artisauak.

887 Makillatzaileak eta estetizistak.

<u>**BIGARRENA**</u>**.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea eragileei.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

**LAUGARRENA.-** Zerbitzu zorroaren gaineko informazio agregatua, laburra eta argia, ematea, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/16 Legearen 54.d) artikuluaren arabera.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (bere eta Ander Figuerido Zubiriaren izenean), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman die** Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programa arautzeko oinarriei.

## 13. 2019-2020 URTEETAKO FINANTZA-KONTROLEKO URTEKO PLANAREN BERRI EMATEA.

**TOLOSAKO UDALA**

***FINANTZA-KONTROLEKO URTEKO PLANA 2019KO ETA 2020KO EKITALDIETARAKO***

### I. partea. Zioen azalpena

1.- Sarrera

32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak eta Gipuzkoako tokiko

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

erakundeen kontabilitate-esparru arauemailea onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, lurralde historiko horretako tokiko erakundeentzako barne-kontrolerako foru-eredu bat ezartzen du, kontrol eraginkorreko gutxieneko estandar batzuk ezarriz, hori egiteko dauden arriskuak eta bitartekoak kontuan hartuta.

32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, *«Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituena».*

2.- Barne-kontrol ekonomiko-finantzarioa eta horren adierazpenak

Foru Dekretu horretan jasotako hedaduraren eta ondorioen arabera, organo kontu-hartzaileak egingo du tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola, toki-erakundeak berak nahiz haren mendeko edo hari atxikitako erakundeek egindako jardueren kontrola barne hartzen duena, eta, horretarako, kontu-hartzailetzako funtzioa eta finantza-kontrola izeneko kontrol-modalitateak erabat eta behar bezala garatuko ditu.

Kontu-hartzailetzako funtzioaren xedea da, aldez aurreko fiskalizazio- eta kontu-hartzailetza-faseen bitartez, toki-erakundearen eta haren erakunde autonomoen egintzak kontrolatzea, eskubideak aitortzea edo gastuak egitea dakartenak, bai eta horietatik eratortzen diren diru-sarrerak eta ordainketak kontrolatzea ere, funts publikoen inbertsioa edo aplikazioa oro har, eta haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenekin bat datorrela ziurtatzeko.

Hala ere, aipatutako Foru Dekretuan aurkeztutako barne-kontroleko ereduan jasotako alderdirik berrienak *finantza-kontroleko* jardueren plangintzari eta gauzatzeari buruzkoak dira. Jarduera horien helburua da tokiko sektore publikoko zerbitzuek alderdi ekonomiko-finantzarioan duten funtzionamendua egiaztatzea, zerbitzu horiek arautzen dituzten araudia eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko, eta, oro har, zerbitzu horien kudeaketa finantza-kudeaketa onaren printzipioetara egokitzen dela egiaztatzeko, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak, eta tokiko baliabide publikoen erabileran aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioek zuzentzen dutela egiaztatzeko.

32/2018 Foru Dekretuak toki-erakundeko organo kontu-hartzailearen esku uzten du barne-kontrola egiteko erantzukizuna, baina, era berean, ezartzen du toki-erakundeak, kontrol-eredu eraginkorra izateko, behar beste baliabide gaitu behar dituela. Ildo horretan, 4.3 artikuluan (Barne-kontrola baliatzeko printzipioak) honako hau adierazten du: «*…Era*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*berean, barne kontrola egiteko, toki entitatetik kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da, betiere organo kontu-hartzaileak gainbegiratuta eta zuzenduta, kontrol finantzarioa egiten denean»*.

Ekitaldian zehar egin beharreko finantza-kontroleko jarduketak Finantza Kontroleko Urteko Plana izeneko dokumentuan jaso behar dira, eta azpimodalitateak bereizi behar dira. Azpimodalitate horiek, halaber, ekitaldian sartuta daude, eta, besteak beste, kontrol iraunkorrekoak eta auditoretza publikokoak dira.

Kontrol iraunkorra

32/2018 Foru Dekretuko 29.2 artikuluaren arabera, kontrol iraunkorraren helburua da etengabe egiaztatzea tokiko sektore publikoaren egoera ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua bat datorrela ordenamendu juridikoarekin eta kudeaketa finantzario onaren printzipio orokorrekin, azken finean xedea baita kudeaketaren ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolaketa eta prozedura alderdiak hobetzea.

Kontrol iraunkorraren barruan sartzen dira, halaber, jarduera planifikagarriak eta ez-planifikagarriak.

Finantza-kontrol iraunkor ez-planifikagarrien jarduketek lege-arau batetik eratorritako jarduketak biltzen dituzte.

128/2018 Errege Dekretuaren 4.1.b) artikuluaren arabera, hauek dira organo kontu-hartzaileari dagozkion finantza-kontrol iraunkorreko jarduketak:

• Dirulaguntza eta laguntza publikoak kontrolatzea.
• Aurrekontu-proiektuen eta horiek aldatzeko espedienteen txostena.
• Kreditu-eragiketak itundu edo aldatu aurreko txostena egitea.
• Aurrekontuaren likidazioa onartu aurreko txostena egitea.
• Lehendakaritzak, zinegotzien heren batek edo legez gehiengo berezia eskatzen den gaietan, ekonomiaren, finantzen edo aurrekontuen arloan eskatutako txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea, bai eta zerbitzu berriak ezartzea egokia den edo daudenak aldatzea ere, proposamenen ekonomia- eta finantza-eragina eta aurrekontu-egonkortasuna ebaluatzeko.
• Ekonomia, finantza eta aurrekontuen arloko txostenak eta ziurtagiriak egitea, eta berariazko araudiak ezartzen dituen organoetara bidaltzea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Finantza Kontrolerako Urteko Planean urtero sartzen diren kontrol-jarduerak dira finantza-kontrol iraunkorreko jarduera planifikagarriak, bai eta ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari esleitzen zaizkion jarduerak ere. Azken hauek hiru dira:

- 25/2013 Legearen 12.2 artikulua: berankortasunari buruzko txostena.
- 25/2013 Legearen 12.3 artikulua: sistemen auditoria, fakturen kontularitza-erregistroari dagokionez.
- 9/2013 Lege Organikoaren 3. xedapen gehigarria: egindako gastuetatik edo jasotako ondasun eta zerbitzuetatik eratorritako betebeharrak dauden egiaztatzea, horietarako aurrekontu-egozpenik egin ez bada.

Auditoretza publikoa

32/2018 Foru Dekretuaren 29.3 artikuluaren arabera, «*Auditoretza publikoan, egiaztatu egingo da, geroago eta sistematikoki, tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, eta, horretarako, sektore publikoaren auditoretza arauetan jasotako berrikuspen prozedura selektiboak erabiliko dira*». Auditoretza publikoak modalitate hauek hartzen ditu barne:

- Kontuen auditoretza: haren xedea da egiaztatzea urteko kontuen bidez ondarearen, egoera finantzarioaren, entitatearen emaitzen eta, hala badagokio, aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioekin bat eginez, eta, baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den.

- Betetze auditoretza: ziurtatu egingo da kudeaketa ekonomiko-finantzarioko egintzak, eragiketak eta prozedurak haiei aplikagarri zaizkien arauei jarraituz gauzatu direla. Auditoretza honen xedea izango da tokiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzea, zehazki alderdi hauetan: ekonomia, finantzak, ondarea, aurrekontua, kontabilitatea, antolaketa eta prozedura.

- Auditoretza operatiboa: sistematikoki eta objektiboki aztertuko dira antolakunde, programa, jarduera edo funtzio publiko baten eragiketak eta prozedurak. Haren helburua izango da balorazio independente bat egitea haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioaz eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokieraz, betiere balizko akatsak sumatu eta gomendio egokiak proposatze aldera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

**II. partea. Finantza-kontroleko urteko plana**

1.- FINANTZA-KONTROLAREN PLANGINTZA

Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikuluak honela garatzen du finantza-kontrolaren plangintza:

- Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituena.

- Kontrol finantzarioko urteko planak barnean hartuko ditu, batetik, legezko betebehar baten ondorioz organo kontu-hartzaileak egin beharrekoak diren jarduketa guztiak eta, bestetik, helburuak, ekitaldi bakoitzeko lehentasunak eta eskura dauden bitartekoak aztertzen dituen arrisku analisi batean oinarrituta urtez urte aukeratzen diren jarduketak. Arriskutzat hartuko da kontrolpeko kudeaketan honako hauek ekar ditzaketen gertaerak edo zirkunstantziak izateko posibilitatea: araudi aplikagarria ez betetzea, informazio finantzarioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo kudeaketaren eraginkortasunik eta efizientziarik eza.

  Behin arriskuak identifikatuta, jarduketak aukeratzeko lehentasunak jarri beharko dira. Horrela, arriskuaren garrantzia baloratzeko ebaluazio bat egingo da, irizpide kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabilita, eta aldizka eta txandaka kontrolak aukeratzea komenigarria ote den begiratuko da. Saihestu egingo da arriskurik gabekotzat hartutako jarduera ekonomiko-finantzarioetan kontrolak errepikatzea zein behin eta berriz kontrolik ez izateagatik ahuleziak sortzea.

- Behin arriskuak identifikatuta eta ebaluatuta, organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plana prestatuko du. Horretarako, egitekoak diren jarduketak zehaztu eta haietako bakoitzaren hedadura objektiboa, subjektiboa eta denborazkoa identifikatuko du. Horrela prestatutako plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera.
- Kontrol finantzarioko plana honako hauek direla-eta aldatu ahal izango da: eskaera bati edo legezko agindu bati jarraituz egindako kontrolak, kontrolpeko entitateen egituran izandako aldaketak, bitartekoen nahikotasunik eza edo behar bezala aztertutako beste arrazoi batzuk. Kontrol finantzarioko urteko plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

## 2.- ESPARRU SUBJEKTIBOA

Finantza Kontroleko Urteko Planaren hedadura subjektiboa, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, honela ezartzen da:

| ESPARRU SUBJEKTIBOA | EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEA | FINANTZA-KONTROLAREN EGINKIZUNA | | | | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | KONTROL IRAUNKORRA | AUDITORETZA PUBLIKOA | | | |
| | | | KONTUENA | BETETZEA | OPERATIBOA | |
| **TOLOSAKO UDALA** | DERRIGORREZKOA | DERRIGORREZ-KOA | EZ | EZ | EZ | |
| **ERRETENGIBEL SA** | EZ | EZ | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | Aktiboa eta pasiboa Udalari lagata 2020/11/26an |
| **TOLOSA LANTZEN SA** | EZ | EZ | DERRIGORREZ KOA | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | Aktiboa eta pasiboa Udalari lagata 2020/09/24an |
| **TOLARGI SL** | EZ | EZ | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | |
| **TOLOSA GASA SA** | EZ | EZ | DERRIGORRE-ZKOA | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | % 60ko parte-hartzea |
| **IURRAMENDI EGOITZA** | DERRIGORREZKOA | DERRIGORREZ-KOA | DERRIGORREZ-KOA | EZ | EZ | Kabian integratua 2019ko apirilaren 1etik |

## 3.- PLANEKO EKITALDIAK

Tolosako Udalaren tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren finantza-kontrolerako urteko plan honek 2019ko eta 2020ko ekitaldiak hartzen ditu bere baitan.

Finantza-kontrol iraunkorreko nahiz auditoretza publikoko jarduerak 2021eko eta 2022ko ekitaldietan gauzatuko dira.

## 4.- HELBURUAK

Plan hau aplikatuz, Tolosako Udalaren tokiko sektore publikoaren kudeaketaren gaineko kontrol planifikatua gauzatu nahi da, aldez aurreko fiskalizazio eta esku-hartzearekin

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

batera, baliabide publikoen administrazioa gero eta eraginkorragoa izan dadin.

Gainera, plan honen aplikazioaren ondorioen balorazioa kontuan hartuko da ondorengo planak egitean.

5.- JARDUKETAK

***5.1- Kontrol iraunkorra***

Kontrol iraunkorra, 32/2018 Foru Arauaren 32. artikuluaren arabera, modu jarraituan egin behar da, eta honako jarduketa hauek barne hartuko ditu:

a) Ziurtatzea betetzen direla eginkizun kontu-hartzaileak hartzen ez dituen kudeaketa ekonomikoaren alderdiei aplikagarri zaizkien araudia eta prozedurak.

b) Jarraipena egitea aurrekontu exekuzioari, eta egiaztatzea helburuak betetzen direla.

c) Egiaztatzea diruzaintzaren plangintza, kudeaketa eta egoera.

d) Exekutatzea tokiko sektore publikoko aurrekontuei eta kudeaketa ekonomikoari buruzko arauetan organo kontu-hartzaileari esleitutako jarduketak.

e) Aztertzea eragiketak eta prozedurak, baloratzeko haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokiera, betiere balizko akatsak sumatu eta haiek zuzentzeko gomendioak proposatze aldera.

f) Toki entitatean ziurtatzea, laginketako tekniken bidez, organo kudeatzaileek kontabilitate informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko modu batean islatzen dutela haien jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruan egindako eragiketen emaitza.

Hori egiteko, organo kontu-hartzaileak organo kudeatzaileari jakinaraziko dio haren laguntza behar duten kontrol iraunkorreko jarduketak hasiko direla

Kontrol iraunkorreko lanak egiteko behar diren ziurtapenak sistematikoki eta horretarako aukeratutako eragiketak edo jarduketak aztertzeko prozedurak aplikatuta egingo dira, betiere ebidentzia nahiko, egoki eta baliagarri bat lortze aldera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Ziurtapen horiek auditoretza prozedurak aplikatuta egiten badira, sektore publikoko auditoretza arauen menpe geldituko dira.

Jarduketak honelakoak izan daitezke, besteak beste:

a) Aztertzea organo kudeatzaileak prestatutako kontabilitate erregistroak, kontuak, egoera orri finantzarioak edo jarraipenerako egoera orriak.

b) Jarraipena egitea eragiketa indibidualizatuei eta konkretuei.

c) Egiaztatzea egintza multzo baten alderdi partzialak eta konkretuak.

d) Materialki ziurtatzea obrak, zerbitzuak, hornidurak eta gastuak benetan eta behar bezala gauzatu direla.

e) Aztertzea kudeaketako sistemak eta prozedurak.

f) Berrikustea beharrezkoak diren kudeaketako sistema informatikoak.

g) Beste egiaztapen batzuk egitea, kontuan hartuta organo kudeatzaileak egindako jarduera ekonomiko-finantzarioen ezaugarri bereziak eta haien helburuak.

Sarrerei dagokienez, kontrol iraunkorreko jarduerak urtean behin gutxienez laginketa-teknikak erabiliz egingo dira.

Era berean, gastuei dagokienez, oinarrizko betekizunen aldez aurreko fiskalizazio mugatuko araubidearen bidez gauzatuko da. Ildo horretan, urtean behin gutxienez, langileen nomina-espedienteak, kontratazioa eta dirulaguntzak aukeratuko dira, laginketa-teknikak aplikatuz. Dirulaguntzei dagokienez, finantza-kontrolaren bidez aztertuko dira horretarako hautatutako justifikazio-kontuak.

2019ko eta 2020ko ekitaldiei dagozkien finantza-kontrol iraunkorraren jarduera planifikagarriak hautatzerakoan, Kontuhartzailetzak erakundearen sektore publikoari buruz duen ezagutzaz gain, aurreko ekitaldietako auditoretza-txostenak eta egindako ingera edo eragozpenak eta oharrak hartu dira kontuan.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Egin beharreko jarduerak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eremu hauetan sailkatu dira:

EGOERA FINANTZARIOAK

Balantzeari, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuari, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriari eta diruzaintzako gerakinari dagokienez:

1. Ziurtatzea, laginketako tekniken bidez, organo kudeatzaileek kontabilitate informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko modu batean islatzen dutela haien jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruan egindako eragiketen emaitza.

2. Kontrol jardunak egiteka, ahalbidetuko dutenak finantza-informazioaren aurkezpen egokiari eta aplikatzekoak diren kontabilitateko printzipio eta irizpideak betetzeari buruzko informazioa ematea.

GASTUAK

Pertsonaleko gastuei dagokienez (1. kapitulua):

- Bitarteko funtzionarioen kontratazioak aztertzea, besteak beste, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 10. artikuluak aipatzen dituen inguruabarrei dagokienez (2019ko ekitaldia).

- Aparteko zerbitzuengatik langileei ematen zaizkien haborokinak edo gratifikazioak aitortzeko aukera aztertzea (2020ko ekitaldia).

Kontratazioan (2. eta 6. kapituluetan): hornidurren eta zerbitzuen lizitazio-egoera eta beharrak aztertuko dira, SPKLren babesean. Zehazki, kontratu txikien bidez zerbitzuak ematen dituzten hornitzaileen urteko fakturazioa aztertuko da, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean horrelako kontratuetarako ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Dirulaguntzei dagokienez (4. eta 7. kapituluak), egiaztatuko da dirulaguntzaren justifikazioa behar bezala aurkeztu dela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela. Hain zuzen ere, jarduketa hauek hautatu dira:

- Kirol Sailean emandako dirulaguntza izendunen justifikazio-kontua egiaztatzea (2019ko ekitaldia).
- Gazteria Sailean norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen justifikazio-kontua egiaztatzea (2019ko ekitaldia).
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal laguntzen justifikazioa egiaztatzea (2020ko ekitaldia).

<u>SARRERAK</u>

e) Laginketa-tekniken bidez, diru-sarreren bajak eta baliogabetzeak etengabe kontrolatuko dira.
f) Jabari publikoa okupatzeagatiko tasak egiaztatzea, hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren kontzeptupean (2019ko ekitaldia).
g) Jabari publikoa okupatzeagatiko tasak egiaztatzea, hesi, aldamio eta abarren kontzeptuan (2019ko ekitaldia).
h) Herri azoka eta jaietan jabari publikoa okupatzeagatiko tasak egiaztatzea (2020ko ekitaldia)

32/2018 Foru Dekretuaren 4.3 artikuluaren arabera, organo kontu-hartzailea, toki entitatetik kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da finantza-kontrola egiteko.

Horretan oinarrituta, eta hautatutako jarduketa guztiak gauzatu ahal izateko baliabiderik ez dagoenez, kanpoko baliabideak kontratatzea proposatzen da, Kontuhartzailetzari etengabeko finantza-kontrola egiten laguntzeko, bai zeregin espezifikoak aztertzeari dagokionez, bai auditoretza- eta laginketa-teknikak aplikatzeari dagokionez.

### *5.2- Auditoretza publikoa*

*5.2.1- Kontuen auditoretzaren esparru subjektiboa*

- Udalaren mendeko erakunde autonomoa (Iurramendi Egoitza).
- Kapital sozialean Udalaren partaidetza nagusia duten sozietate publikoak (Erretengibel SA, Tolosa Lantzen SA, Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA).

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*5.2.2.- Betetze auditoretzaren eta auditoretza operatiboaren esparru subjektiboa.*

- Kapital sozialean Udalaren partaidetza nagusia duten sozietate publikoak (Erretengibel SA, Tolosa Lantzen SA, Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA).

*5.2.3- Kontuen auditoretzaren esparru objektiboa*

Iurramendi Egoitza udal erakunde autonomoa

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzat jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz.

Era berean, barne-kontroleko sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketak antolatu eta baimentzeari, gauzatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

Erretengibel SA

Kontu-auditoretzak sozietatearen finantza-egoerak aztertuko ditu, egiaztapen-, konparazio-, berrespen- eta analisi-prozeduren eta egokitzat jotzen diren gainerakoen bidez, horiek sozietatearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta finantza-egoeran izandako aldaketak behar bezala islatzen dituzten edo ez iritzia emateko, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruaren arabera.

Era berean, barne-kontroleko sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketak antolatu eta baimentzeari, gauzatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Tolosa Lantzen SA

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzat jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz.

Era berean, barne-kontroleko sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketak antolatu eta baimentzeari, gauzatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

Tolargi SL

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzat jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz.
Era berean, barne-kontroleko sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketak antolatu eta baimentzeari, gauzatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

Tolosa Gasa SA

Kontuen auditoretzak erakundearen finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoerak aztertuko ditu, egiaztatzeko, alderatzeko, baieztatzeko, aztertzeko eta egokitzat jotzen den beste edozein prozedura erabiliz, horien bidez erakundearen ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta aurrekontuaren likidazioa behar bezala islatzen diren edo ez iritzia emateko, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz.
Era berean, barne-kontroleko sistemak ebaluatuko ditu, kontabilitate- eta administrazio-prozedurei, eragiketak antolatu eta baimentzeari, gauzatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, eta, hala badagokio, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren iradokizunak egingo ditu.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*5.2.4- Betetze auditoretzaren esparru objektiboa*

<u>Erretengibel SA</u>

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatu beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredua (hirugarrenekiko betebeharrak), 190 eredua (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredua (BEZaren urteko aitorpena).

b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea …).
b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.
b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta horniduretan (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.

<u>Tolosa Lantzen SA</u>

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatu beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredua (hirugarrenekiko betebeharrak), 190 eredua (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredua (BEZaren urteko aitorpena).

b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea …).
b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.
b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta horniduretan (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.

<u>Tolargi SL</u>

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatu beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredua (hirugarrenekiko betebeharrak), 190 eredua (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredua (BEZaren urteko aitorpena).

b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea …).
b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.
b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta horniduretan (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.

Tolosa Gasa SA

a). Sozietateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea. Gainera, egiaztatu beharko da epearen barruan aurkeztu direla 347 eredua (hirugarrenekiko betebeharrak), 190 eredua (PFEZaren atxikipenak) eta 390 eredua (BEZaren urteko aitorpena).

b). Langileen arloko legeria betetzen dela egiaztatzea, hala badagokio. Zehazki:

b.1). Ekitaldian zehar egindako hautaketa-prozesuak berrikustea (merezimenduen balorazioa, publizitatea …).
b.2). Soldatak berrikustea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera.
b.3). Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.

c). Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea, dagoeneko gauzatutako kontratuetan jarraitutako prozedurei buruz. Kontratu horien zenbatekoak 40.000,00 eurotik gorakoak dira obretan (BEZik gabe), eta 15.000,00 eurotik gorakoak zerbitzu eta hornidurean (BEZik gabe).

d). Artikulu honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua, kontratu txikiei buruzkoa. Egiaztapen horiek egiteko, 347. ereduan jasotako informazioaren laginketa-teknikak aplikatuko dira.

e). Hala badagokio, dirulaguntzak emateko prozeduren eta araudiaren izaera egiaztatzea.

*5.2.5- Auditoretza operatiboaren esparru objektiboa*

Toki-erakundearen sektore publikoaren barruan dauden sozietate guztientzat (Erretengibel SA; Tolosa Lantzen SA, Tolargi SL eta Tolosa Gasa SA), honako zeregin hauek egingo dira:

a) Gastuak estatutuen xedeetara egokitzen direla egiaztatzea.
b) Gastuak eta sarrerak aurrekontuei egokitzen zaizkiela egiaztatzea.
c). Finantza-iraunkortasuna aztertzea.
d) Desegiteko kausarik dagoen aztertzea.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*5.2.6- Exekuzioa eta lankidetza auditoretza publikoan*

Auditoretza publikoaren exekuzioa 32/2018 Foru Dekretuaren 33. artikuluan dago araututa:

*«1. Auditoretza publikoko jarduketak sektore publikoko auditoretza arauen menpe egongo dira, bereziki alderdi hauei dagokienez: lanaren exekuzioa; txostenen prestaketa, edukia eta aurkezpena; beste auditore batzuen lankidetza; eta auditoretza publikoko lanen kalitatea eta homogeneotasuna ziurtatzeko behar diren beste alderdi batzuk.*
*2. Organo kontu-hartzaileak jarduketak hasiko direla jakinaraziko dio, idatziz, auditatutako zerbitzu, organo, organismo edo entitateko titularrari. Auditoretzako lanek barnean hartzen dituztenean beste kontrol organo eskuordetu baten jarduketa eremuaren barruan egitekoak diren jarduketak, kontrol organo horretako titularrari jakinaraziko zaio jarduketak hasiko direla.*

*Era berean, auditoretzari lotutakoak ez diren beste zerbitzu, organo, organismo edo entitate batzuetan jarduketak egitea beharrezkoa denean, hala jakinaraziko zaio zerbitzu, organo, organismo edo entitate horretako titularrari».*

Auditoretza-jarduketetako lankidetza 32/2018 Foru Dekretuaren 34. artikuluan dago aurreikusita:

*«1. Organo kontu-hartzaileak proposatuta, auditoretza publikoak egiteko, toki entitateek lankidetza publikoa edo pribatua lortu ahal izango dute ondorengo apartatuetan jasotakoaren arabera. Horretarako, toki entitateen aurrekontuetan, lankidetza beharrak asetzeko nahikoak diren kopuruak jasoko dira.*

*2. Auditoretza publikoko jarduketak egiteko, toki entitateek beste organo publikoen lankidetza lortu ahal izango dute, bai eta hitzarmenak sinatu ere.*

*3. Era berean, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko, toki entitateak auditoretza pribatuko zerbitzuak kontratatu ahal izango ditu, betiere organo kontu-hartzaileak emandako jarraibideen arabera.*

*Auditoretza pribatuko zerbitzuak gehienez bi urterako kontratatuko dira, sektore publikoko kontratuen legerian jasotakoaren arabera luzatuta. Halere, lan horiek asko jota zortzi urtez egin ahal izango dira, luzapen aldiak barne, entitate beraren gainean elkarren*

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

*segidako kontratazioen bidez, eta, horretarako, zerbitzu horiek ezin izango dira entitate beraren gainean lanak egiteko kontratatu harik eta bi urte igaro arte zortzi urteko epea amaitzen denetik aurrera.*

*Ezin izango dira kontratatu, organo kontu-hartzailearekin lankidetzan aritzeko, auditoretza egingo den urte berean edo aurreko urtean entitatearentzat auditoretza txostenean iritzia eman behar duten arlo edo gaien inguruan beste lan batzuk egin edo egiten dituzten auditoretza sozietateak eta kontu auditoreak».*
Bitarteko material eta pertsonal egokirik ez dagoenez, eta 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tolosako Udaleko Kontuhartzailetzaren asmoa da Udalak zuzenean kanpoko auditoreak kontrata ditzan bultzatzea, kontuen auditoretzak, betetze auditoretzak eta auditoretza operatiboak egiteko.

**III partea. Finantza-kontrolaren emaitzak, ondorioztapenak eta ondorioak**

32/2018 Foru Dekretuaren 35.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, *«kontrol iraunkorreko jarduketen eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontrolpeko jarduketei buruzko gomendioak. Era berean, berehalako jarduketa zuzentzaile baten bidez zuzendu beharreko akatsak adieraziko dira, eta hura gauzatu dela ziurtatu beharko da ondorengo kontrol jarduketetan».*

Finantza-kontrolaren emaitzak idatzizko txostenetan dokumentatuko dira, eta txosten horiek dagozkien erakundeei, alkateari eta osoko bilkurari jakinaraziko zaizkie, jakinaren gainean egon daitezen. Osoko bilkurak gai-zerrendatik aparteko puntu bat eskainiko dio azterketari. Zehazki, Udaleko kontuhartzailetzak urteko txosten laburtzaile bat egingo du, emaitzarik esanguratsuenak bilduko dituena, eta osoko bilkurari aurkeztuko dio kontu orokorra onartzen den unean bertan.

Azkenik, 32/2018 Foru Dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, «*Toki entitateko lehendakariak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko artikuluan aipatutako txosten laburtzailean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak».* Ekintza-plana gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da, txosten laburtzailea osoko bilkurara bidaltzen denetik zenbatzen hasita, ezarri beharreko neurri zuzentzaile eta prebentiboekin, neurri horiek aplikatzeko arduradunekin eta inplementazio-egutegiarekin batera.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

Udalbatzako kideak 2019-2020 urteetako finantza-kontroleko urteko planaren jakinaren gainean geratu dira.

## 14.ERAGOZPEN EDO INGEREN KONTRA EMANDAKO EBAZPENEN URTEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

### 1.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena; 15. artikulua.

### 2.- TXOSTENA

Aurrekontua gauzatzeko arauan ezarritako maiztasunarekin edo, hura ezean, Kontu Orokorra onartzen denean, kontuhartzaileak Osoko Bilkurari aurkeztuko dio alkateak eta Osoko Bilkurak eragozpenen (ingera) kontra, edo Foru Aldundiko kontrol organoak egindako txostenen aurka, hartutako erabaki guztien urteko txosten bat eta sarreren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpen bat.

#### 2.1. Eragozpenen aurkako ebazpenak

Txostena eginkizun kontu-hartzailearen ariketari lotutako alderdi eta zereginei buruzkoa izango da bakarrik, eta ez da baloratuko bertan fiskalizatzen diren jarduketak egokiak edo komenigarriak diren.

Txostenean bereizi beharko da eragozpenen artean zeintzuk diren etengarriak eta zeintzuk ez.

Alkateak bere txosten frogagarria aurkeztu ahal izango du Osoko Bilkuran.

Osoko Bilkurari informatu ondoren, kontu orokorra egiten denean, kontuhartzaileak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari informazio hori bidaliko dio.

Adierazitako informazioaren zerrenda egin da. 2019ko Kontu Orokorra aurkeztu zenean ekitaldi horri dagokion informazioa eman ez zenez, orain azken bi ekitaldietako informazioa sartu da.

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

ERAGOZPEN ETENGARRIEN AURKAKO EBAZPENAK

| Data | Ebazlea | Gaiaren azalpena | Fiskalizazio txostena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| 2019/6/4 | Udalbatza | Pabiloiaren alokairua kontraturik gabe | 2019/1 | 6.957,50 |
| 2019/5/30 | Alkatea Dk 925/2019 | Pabiloiaren alokairua kontraturik gabe | 2019/2 | 34.787,50 |
| 2019/12/27 | Alkatea Dk 2147-2/2019 | Pabiloiaren alokairua kontraturik gabe | 2019/3 | 49.260,20 |
| 2019/12/27 | Alkatea Dk 2150/2019 | Ibilgailuaren erosketa 9/2017 Legea bete gabe | 2019/4 | 26.747,39 |
| 2019/12/27 | Alkatea Dk 2151/2019 | Kontratu txikien gehienezko zenbatekoa gainditu | 2019/5 | 36.688,79 |
| 2020/5/28 | Udalbatza | Kontsignaziorik gabeko gastuak | 2020/1 | 82.628,87 |
| 2020/12/28 | Alkatea Dk 2058/2020 | Kontratuaren baldintzak bete gabe egindako gastua | 2020/2 | 9.236,72 |

ERAGOZPEN EZ-ETENGARRIEN AURKAKO EBAZPENAK

Ez dago halakorik.

KONTU-HARTZE EGINKIZUNA EZ BETETZEA

Ez dago halakorik.

**2.2. Sarreren arloko anomalia nagusiak.**

HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaiak Gipuzkoako hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren 16/1989 Foru Arauaren hainbat artikulu deuseztatu zituen, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen zituelako.

Sententzia hari berehalako erantzun bat eman zitzaion, zergaren aplikazioan zituen ondorioetarako. Alabaina, Konstituzio Auzitegiak berak adierazi zuen geroago lasaiago aztertu beharra zegoela gainbalioetatik ondorioztutako gaitasun ekonomikoen kuantifikazio objektiboa nola zehaztu.

Egoera horretan, bere momentuan erabaki zen hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidaziorik ez egitea, eta orduz geroztik ez da likidaziorik egin, salbuespenak

ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8

salbuespen. Soilik egin dira zerga kuota zehazteko Udalak duen eskubidea preskribitzeko arriskuan zeudenak.

2020an likidazioak egiten hasi badira ere, urte amaieran 1.800 inguruko eskriturak zeuden aztertzeko oraindik, 2017-2020 epeari dagozkienak.

GIZA BALIABIDEAK

Azken bi urte hauetan, Kontuhartzailetzan karrerako funtzionarioei dagozkien hainbat lanpostu bete gabe egon dira hainbat momentutan: errenta teknikaria, errenta administraria, kontabilitateko administraria, Kontuhartzailetzako goi-teknikaria edo diruzaina.

Lan karga arintzeko, zereginen pilaketagatik kontratazio batzuk martxan jarri dira, baina oso zaila izan da zerbitzuko zeregin guztiak betetzea.

Udalbatzako kideak eragozpen edo ingeren kontra emandako ebazpenen urteko txostenaren jakinaren gainean geratu dira.

**15. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 20:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: ESKU99325dca-6e52-46eb-bd72-f8f9e377c6d8
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2021IPLE0007-2021-07-29 Ohiko Osoko bilkurako akta/2021-07-29 Ohiko |
|---|---|

Data / Fecha: 2021/08/11 13:45:41
Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ

Data / Fecha: 2021/08/23 10:51:19
Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)